



## NOLAKO SANINAZIYUEK NAHI DITUGU?

**Beloki**  
 Koto Nagardis, 75 Tel.: 943 85 04 62  
 AZKOITIA  
 Jose Arretxe, 21 Tel.: 943 151392  
 AZPEITIA



**EDUARDO BERASATEGUI**

Harategi eta Zerritegia  
 Euskal Herriko Haragirik Ozenal

San Inazio Kaleko 12an  
 Urrut. 943 81 14 98



*bertako okela*

HARZUBIA, 26 D  
 TEL. 81 60 25  
 ETXEKOA 15 00 03  
 AZPEITIA

**Harategia Odriozola**

Harategi  
 Especializatua

Arana Kalea, 14  
 Urrut.: 943 81 1015



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4  
 TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA,  
 TFNOA.: 943 811671



EUSKO LABEL



KALITATEA

Iosu Goenaga eta gazteen euskara (12-13)

Iñaki Arrietak utzi egin dio neskak entrenatzeari (35)



'Kafe'-k borrokaldian jarraitzen du espetxean (38)



Klik: Zine Kluba 25 urte fotograman artean (46-48)

uztarria

'Taldea lana, lan taldean egiten denean' dio Iraurgi Saskibaloia Elkartearen liburuaren izenburu batek; horra hor Iraurgiren 25 urteetako filosofia

# KIROLA ETA HERRIA UZTARTU DITUEN KLUBA

Enekoitz Esnaola



Jose Luis Zubizarreta Xubi, 1981ean, Azpeitian, Betharramdarretan, Hirugarren Mailara igotzeko Iraurgi-Jarrilleros partiduan.

**M**ende laurden bat herriari kirol zerbitzu bat ematen. Izenburu hori eman dio Iraurgi Saskibaloia Elkartearen 25. urteurreneko liburuari Jon Olaizola egile azpeitiarrak —uztailaren 25ean aurkeztuko dute, 12:00etan, udaletxean—. Herria. Kirola. Zerbitzua. Hiru hitz horiek definitzen dute Iraurgi. "Eta familia-k ere bai", dio liburuan Luis Oyono jokalaria ohiak. Izan ere, Oyono 1986an Donostiatik etorri zenean, pentsatzen zuen "jende itxiarekin" egingo zuela topo, baina "oker" zegoen, "egundoko giroa" aurkitu zuelako bertan. "Azken batean, klub erromantikoa zen nire garaietan Iraurgi, familia bat bezalakoa, kantxan ez ezik, kalean ere elkarrekin ibiltzen zelako bertako jendea". Ederki daki hori Oyonok, Iraurgira jokatzera etorri eta jada lehenengo egunean bertan parranda polita bota zuelako familiarekin. Saskibaloian sinesten duen lagunko adriela batek kirol hori eskaini die, beraz, Azpeitiari eta Azkoi-tiari azkeneko 25 urteetan.

Bidea, ordea, ez da erraza izan. Ondorengo bi pasadizoak oso adierazgarriak dira lehen urteetako azpiegitura arazoak nolakoak ziren ikusteko. Bate- ▶▶

# Josu Arregi

“Bilbotik etortzean garbi nuen zer egin behar zen: klub egitura eman”



S ortzailea, jokalaria, lehen entrenatzaile, gazteen entrenatzaile, nesken entrenatzaile, eskolarteko txapelketen arduradun, zuzendaritzako kide... zer ez da izan Josu Arregi azpeitiarra Iraurigin? Presidente. Iraurgi sortu berritan saskibaloiaz “ideiarik ez” zuen bat jarri zuen buru —Iñaki Zubizarreta, honek kontaktzen duen bezala—, baina berak zuzentzen zuen kluba. Azkoitian bizi da Josu, hara ezkondu zelako, eta lurren egiten du lan, eta makina bat kilometro egin ditu autoan hara eta hona, lanera eta saskibalo partiduetara; hari buruz maiz kontaktu izan den bezala, egunkaria irakurtzen joaten da autoan txofer, dagoeneko autoak errepide guztiak ederki asko *ezagutzen* dituelako. Auto batek jada pott egin zion —Renault 20 urdin ilun batek—, baina Josuk hor segitzen du, tinko. “Saltseroa naizelako”, dio.

● **Zu hasi zinen 1970. hamarkadaren hasiera aldera Azpeitian eta Azkoitian saskibaloia sustatzen. Nolatan?**

Nik orduan Bilbon jokatzen nuen, Aguila-

► tik, 1970. hamarkadaren erdialdera Azpeitiko gazte batzuek sinadura bilketa egin behar izan zuten saskibaloian jokatzeke toki baten falta zegoelako, eta udaletxean eskaera sartu zuten; Udalak ezin ezetz esan eta *Xaxarki*-k egin zuen Betharramdarretako jokalekuaren egokitzeta lana. Bestetik, handik urte gutxira bi saski txiki erosi zituzten Betharramdarretan jartzeke, baina dena ez zen erosotasuna; izan ere, behin Josu Arre-

gi emaztearekin Madrilera zihoala ezkontza batera, malda batean autoak ezin zuela ohartu zen eta orduan jakin zuen zergatia: maleta-tokian Betharramdarretako saskiei eusteko burdinpuskak zeramatzan! Alegia, hasiera haietan kontua ez zela entrenatzera edo jokatzerara joan eta entrenatzea edo jokatzea soilik, baizik eta jokalekua zaindu eta egokitu beharra zegoela: materiala gorde, kantxa margotu edota markatu...



Goian, Luis Etxaniz, Miguel Angel Elorza, Mikel Sarasua, Patxi Ugarteburu, Iñaki Uria eta Josu Arregi. Behean, Iñigo Agirre, Inazio Irureta, J. Luis Zubizarreta, Pello Aizpuru eta Iñaki Altuna, 1978-79an.

## Bi une berezi eta ahanztezin

● **TXERRI HURA.** 1982-83 denboraldia. Iraurgi-Ordizia. Betharramdarretan. Jendea erruz. Jokoa: Hirugarren Mailarako igoera. Protagonista: jokalaria... eta txerri bat, Iraurgiko zaleek aterea Ordiziako elastikoarekin. Derbia zen.

● **PABLOK SOST.** Iraurgi-Jarrileros partidua. Izarraitz frontoia leporaino. Partiduko azkeneko segundoa. Iraurgi puntu batetatik galtzen. Pablo jokalaria azkoitiarrak bere saski azpian baloia hartu, Jarrilerosen saskira bota... eta barrura! Iraurgik irabazi. “¡Desde mas de 40 metros!”, zioen irrati esatari batek, kantxak 40 metro ez izan arren.

**SORRERA NOIZ?** Mende laurdena ari da betetzen Iraurgi Saskibaloia Elkarteak, baina saskibaloia hastapenak lehenagotik datoz. 1972an, adibidez, Anaitasuna Illarra taldea sortu zen. 1973an, hura desagertu eta Lagun Onak sortu eta 1979a arte egon zen (Iraurgik 1979an hartu zuen izen hori, baina jada bazeramatzan bi urte autonomiaz lanean).

Izen batekin edo bestearekin, Azkoitia eta Azpeitia bat eginik



Luis Oyono —8a—, Pello Aizpuru —10a— eta Jose Miguel Etxaniz —15a—, Ordiziaren kontra.

sen, Espainiako Lehen Mailan. Murgildua nengoen saskibaloiarekin, baina udan herrira etortzen nintzenean, hemen ezer ez nuen ikusten, jendeak ez zuen saskibaloian jokatzeko, eta kirol hau sustatu beharra zegoela erabaki nuen.

● **Nola hasi zinen sustatzen?**

Mutil gazte batzuk hartu —Kike Zurutuza, Arrue...— eta haien artean lagunarteko partidu batzuk antolatzen. Jendeak ideia zorrik ez zeukan saskibaloiaz; ez nola entrenatu behar zen, ez taktikaz, ez teknikaz... Hutsetik hasi nintzen, beraz.

● **Inguruan ere ez al zegoen ezer?**

Zumarragan zeozer.

● **Eta?**

Ba oso garbi nuela zer egin behar nuen: kluba sortu, klub egitura eman —estatuak, antolaketa...— eta aurrera. Ideia horixe nuen. Baina pare bat lagun behar nituen gauzatzeko. Hala, Xubi eta beste pare bat lagun hasi ziren nirekin lanean.

● **Azpiegitura aldetik gaizki ibiliko zinteen...**

egon dira. Talde lana lan taldean egiteaz gain, bi herrietako ki-deak egotea izan da Iraurgiren filosofia, eta hori oso “barneratua” dutela dio Iñaki Uriak azkoitiar jokalaririk. “Nahiz eta Azpeitian jokatu, beti pentsatu izan dut azkoitiarrok ez genuela Azpeitian jokatzeko, baizik eta Azkoitiko eta Azpeitiko taldean, eta elkarlan hori oso natural ikusten dugu”.

Horrek guztiak emaitza onak eman dizkio, lehen taldea Biga-

rren Mailan jokatzera iritsi izan delako behin baino gehiagotan, bederatzi talde federatu izatera heldu zelako, *kanpeonato* lokalarekin ere herrian Iraurgiren presentzia handia zelako .. Neskek ere emaitza onak lortu dituztela dio Maixol Rezolak, “gogor entrenatzen bainekin”. 1986tik 1993a arteko urteak izan ziren onenak —1986an bertan atletismo sekzioa sortu zen—, Izarraitz frontoiko azkenak eta Azpeitiko Kiroldegiko



Josu Arregi, saskiratzen. Bilboko Aguilas taldean zegoenean, 1970. hamarkadan.

“ Jendeak saskibaloian ikusten gintuenean, arraro begiratzen gintuen, kirol berria zelako ”

“ Denbora gutxian asko aurreratu gunden, eta Donostiako taldeak beldurrez etortzen ziren ”

Oso gaizki. Hemen inguruan ez zegoen ia saski bat bera ere. Azkoitian, Floreagan zeuden saski batzuk, eta hara joaten ginen, barrura sartzeko baimenik ez izan arren. Baina guk saskibaloian jokatzeko nahi gunden.

● **Giroa ere ez zen aproposena izango...**

Jendeak gu saskibaloian ikusten gintuenean, arraro begiratzen gintuen, kirol berria zelako. Baina guk garbi geneukan zer egin behar gunden, eta laster erosi gintuen bi saski txiki eta Azpeitian, Betharramdarretan jarri gintuen.

● **Iraurgi azkar samar hasi zen emaitza onak lortzen, ezta?**

Denbora gutxian asko aurreratu gunden. Jende indartsua atera gunden, Jose Miguel Etxaniz bezalako jokalaririk izan gunden. Donostiako taldekoak teknikoki gu baino hobekien ziren arren, Betharramdarretara beldurrez etortzen ziren jokatzeko. “Zein dira hauek?!” esaten zuten guggatik. Gure errekurtsioak ondo explotatzen gintuen.

## Pello Aizpururen adibidea

● **Oso adierazgarria da Pello Aizpururen adibidea —edo Xubirena, edo Uriarena...— Iraugin sartzeak zer esan nahi duen jakiteko. Hau da, Josu Arregirik ustekabean esanda, Pello 14 urterako hasi zen lehen taldean jokatzeko —bere lehen taldea zen!—, eta, harrezkero, beti seniorretan jokatzeko gain, beste hainbat lan egin zituen klubean egon zen hamabost urteetan: juniorrak eta ikastolako haurrak entrenatu, zuzendaritzako bileretara joan... Jon Olaizola liburuarren egileak dioen bezala, “jokatu nahi zuenak klubaren egiturari eusteko lana egin behar zuen”. Hori izan da Iraurgiren filosofia... eta oinarria.**

aurrenak. Harrezkero behera egin zuen Iraurgik, jendearen babesa ez zelako lehen adina-koa eta betiko jende bera ari zelako lanean eta pixka bat erretzen hasi zirelako.

Dena dela, “errekuperatzen” hasi da. “Iraganaz pozik bagaude, etorkizunaz baikor gaude, kluba haur eta gazte mailan ondo ari delako geroa ereiten”, dio Jose Luis Zubizarreta presidentek. Orain arte bezala, saskibaloia eta herria uztartzeko. ●



1992-93ko kadeteak. Goian, Berta Odriozola, Aitzpea Huegun, Maria Jesus Urbieto, Ainhoa Etxaniz, Edurne Olaizola eta Maixol Rezola. Behean, Ana Asiain, Koro Epelds, Begoña Arakistain, Mirari Amenabar, Lorea Landa eta Nerea Epelde.



Pello Aizpuru —eskuinean—, Iraurgi-Askatuak partiduan.

amuko zubitik Jabier Altuna



## ATZERATUTAKO SANJOANAK

**O**rain dela hamar egun gertatutako parkearen erreketak ez dakit nola hartu; umeke-ri, astakeri, edanda zeuden batzuen grazia... baina ez dut isolatutako ekintza bat bezala ikusten, egoera baten ezaugarri bezala baizik. Azken urteetan okerrera doan eta benetan oso haserretuta naukan gure kaleetako egoera.

Izugarrizko zarata ateratzen duten moto txapelketak kaleetan zehar eguna joan eta eguna etorri, *derrapeak* eginez plazara sartzen diren autoak, larunbatero hainbat auto ispilu, eskaparate... puskatuta eta autoak nahi duten lekuetan aparkatuta umeekin doazenei edota elbarriei pasatzea eragozten. Orain dela egun batzuk zebrabide batean semeari eutsi izan behar genion gelditu ez zen moto bat zetorrelako izugarrizko abiadan.

Norbaitek esan dezake exageratzen ari nai-

zela; beharbada oso subjektiboki ari naiz idazten baina kasualitate handiegia litzateke niri bakarrik gauza hauek gertatzea. Batik bat hau diot erreketak ondoren jendearekin hizketan gauza mordo batez enteratu naizelako: han hau gertatu zen, beste egunean ez dakit zer... horregatik diot nahiko zabala den egoeraz ari naizela.

Har ditzagun pintadak; politika alde batera utzita, garbitasunari bakarrik begiratuta Azpeitiko hormek ez dute zerikusirik ia beste inongo herrietako hormekin; zergatia garbi dago, Udalak benetan serio hartu duela apustu hori (pintadak ikusten ditudanean hurrengo egunean goizeko seieta garbituko dituzten langileez gogoratzen naiz). Beste apustu hau garrantzitsuagoa dela esango nuke, jendea gehiago izorratzen duelako eta edozein egunetan istripu bat gertatuko delako.

azketako ude Ainhoa Odriozola



## HAURREN AISIALDIARI BURUZ

**U**daz gehien gozatzen dutenez jardun nahi nuke: hurrez. Oporraldi luzea aurretik, euren algara eta zalapartak entzun ditzakegu kalean noiznahi. Oraintsu arte berria zen irudia errepikatzen ari da kalean, sokatik helduta doazen txikitxoak edo begiraleekin doazen haur taldeena. Udalak antolatzen dituen udako haurrentzako egitarauaz ari naiz.

Haurrek ordu batzuek era guztietako ekintzak egiteko aukera dute, primerakoa. Urte askotan jardun dut (eta dihardut) haurrekin honelako ekintzetan lanean, Azpeitian eta beste herri batzuetan, eta oso ondo jotzen ditut egitasmook. Haurrek ondo pasatzen dute eta, gainera, eskola eta lagun taldea zabalteko aukera dute. Jolasean pasatzen dute denbora; euren garapenerako dakartzan onurerekin, eta elkarlana, elkar laguntzea, errespetua, konpartitzea bezalako baloreak bereganatu dituzte. Begirale dudak esperientzia baikorra eta aberasgarria izan da, eta haurren esker ona nabaritzeko zortea izan dut maiz.

Aisialdirako aukera ona beraz, baina askotan nire iritzian gaizki edo gehiegi erabilia. Kontuan izan behar da, zuzendutako aisialdi mota dela-eta haurrek aisialdi askearen premia ere badutela, non beraiek asmatu eta antolatu behar duten euren denbora eta jolasa. Benetako aisialdi askatzailea norberak sortu, eraiki eta aurrera eramaten duena da, eta alderdi asko hartzen ditu barruan, denbora askea, denbora antzua (ezer egin gabe egotea ere ona da), denbora gidatua... Azken hori litzateke udaldiko ekintzek hartuko lukeena. Askotan aukera honetaz abusatu egiten da, erosotasunagatik, haurrak kontrolpean izateagatik edo mila arrazoi tarteko. Haurrek gauza asko behar dituzte honetaz gain. Guraso eta honetan lanean ari garenok kontuan izan behar genuke hori eta ez horrelako ekintzetan oinarritu haurren oporraldia. Bestela, norberak bere haurtzaroa gogora dezala, non ez zegoen horrelako aukerarik... Gaizki pasatzen genuen ala?

puntie ateaz

Enekoitz Esnaola

## ADIBIDEZ, KAITO TB ETA ZEZENKETAK

**E**z dago zezenketa bat telebistaz diferituan ikuste baina gauza aspergarriagorik. Kaito Telebistak diferituan botatzen ditu Azpeitiko zezenketak, eta askotan. Baina, gustatu edo ez gustatu, Kaitok herriari zerbitzu bat eskaintzen dio... sarrera bere poltsikotik ondo ordaindu eta gero. Ez diote, bestela, zezen-plazara sartzen uzten, Azpeitira urtean behin eta horretara etortzen diren beste komunikabideetako langileak doan sartzen diren bitartean. Eta ez haiek bakarrik; beste asko ere doan sartzen dira, zuzenean edo *diferituan*.

Ez dago herrian herrikoa herriko gauzak egiteagatik ez baloratzea baina gauza injustuagorik. Eta injustizia hori Azpeitian egon bada-go.

Adarrik ez!

bota bertsue

Imanol Lazkano

## MIXEL LEKUONA

Biriatuko baserri hartan mundu hontara sortzean heziketa bat izan zenduen umil ta larre motzean gazte aroa joan zitzaizun lanean ta otoitzean Jainkoa eta nekazaritza itsasiaz bihotzean.

Omen xume hau zergaitikan den da gauza agerikoa bi maitasunen morroi bat zera baserria ta jainkoa kristauen artzai izate soila etzen zuretzat nahikoa artzaien artzai bihurtu zinen eta ez nolanahikoa.



**EUSKARA-UMOREA.**

Euskararen gaiaz hitz egitean, maiz kontu ezkorrak eta txarrak emateko hitz egin ohi da. Baina euskararekin ere diberti daiteke, Amonarrirek eta Olariagak Baiteren saioan erakutsi bezala.



**TXIKIZIOAK.**

Asteburu batean zezen-mutilaren eskultura hautsita. Hil honetan Hartzubiko haur parkea erreta. Zentzurik gabeko asteburu gauetako txikizioak. Grazirik gabeko graziak denak ere.



**TXUPINAZOA.**

Udaletea obratan izanda, bertatik botako al da aurtan ere txupinazoa Saninaziyuei hasiera emateko? Eta Saninaziyo bigarren agintariei ongietorria han emango alzaie?

**gutunak**

**Bidegorria noizko? Edo inoiz ez?**

Uda gerturaten denarekin batera, autoa alde batera utziz, oinez edo bizikletaz ibili ohi naiz herrian zehar, baita lanera joateko ere. Baina, egunero bizia jokatzen ibiltzea ere ez da samurra. Egia esan, Azpeitia ez da batere eroso bizikletaz ibiltzeko; lanerako joan-etorrian, ordu puntuak dira, auto guztiak harat honat dabilzan ordua. Hala, bizikleta da etxera bazkaltzera joateko modurik azkarrena. Ez, ordea, seguruena, autoak presaka ibiltzen baitira. Horrela lanerako ibilbidean. Baina herrian bertan ere bizikletaz ibiltzeko aukera urria da. Etxetik bizikletaz irten eta tabernaren batean lagun batekin trago txo bat hartzekotan gelditu, eta betiko galdera: gaur ere taberna atarian utzi behar al dut bizikleta? Beti bide bazterrean bizikleta utzi beharra ere...

Zergatik ez dituzte jartzen autontzako eta motoentzako, be-

**bada kejie!**



Pablo VI.a auzunean, kablea zintzilika.

zalaxe, bizikletak aparkatzeko lekuak herrian zehar, auzoetan eta alde zaharretan? Bizikletak uzteko toki bakar batzuekin nahikoa litzateke eta ez dute horrenbeste leku hartzen. Herrian horrelako leku bakar bat

ezagutzen dut: Zapo Txoko Gaztegunea.

Bestetik, aparkatzeko lekua gauza bat da, baina bizikletaz ibiltzeko bide batzuk, bidegorriak, egitea ere ez legoke baterre gaizki. Azkoitian, honetan au-

**Kablea ia lurreraino**

Pablo VI.a auzoko 14. eta 15. zenbakien artean dagoen kableak ia lurra jo du. Denborarekin, gero eta beherago dago kable hori. Gaur egun, edonork salto txiki bat egin eta eskuekin hartzeko moduan dago. Ez dakit noren ardura den kablea konpontzearena; argiaren, telefonoaren... kablea den ere ez dakit. Baina ezer gertatu baino lehen, zerbait egin beharko da. Behin gertatu ostean alferrik baita gardutea. Ea bada gutuntxo honen arduradunak mugitzea dakarren.

Xabier Orbegozo

rra hartu digute eta Txerlo futbol zelaiaren inguruan —ibilbide luzekoa ez bada ere— bidegorria egin dute. Azpeitian noizko? Edo inoiz ez?

Igor Larrañaga

**akullue**



Leire Ostolaza

**FESTAK, UNE  
ETA USAIN  
DESBERDINAK**

**T**xurro eta almendra garrrapinatú usaina Harztzubi aldean eta Anbulategira hurbiltzen goazen heinean *tiobiboen* soinua, eguerdiko beroenean, siesta izorratu nahian. Lixiba usaina darie tabernei lehen festa eguna eta gero, haurrentzako jolasak plazan, txaranga kalean eta zezenak ere prestatu dituzte umiliazio eta heriotzarako. Ilunabar aldera tabernak bizitzen, usain asko nahasten dira airean, kaleak betetzen hasi dira.


Zerua pirotekniak hartu duenean gure buruak zeruetara doaz gau baterako eta tabernaz taberna zurrunbilo batean nahastuko gara, lehen printzek abisu eman artean. Beste batzuek urrutietako orkestraren doinuak edo abesbatzak entzunez pasatuko dute tarte bat, eta derrigorreko pare bat trago hartuta etxera, haurrak oheratza.

Txosnetan aurkituko dugu musika desberdina, sabai irekia eta talde desberdinei diru pixka bat uzteko aukera. Argia mozten duten arte giro ona izango da.

Goizean okindegian bi aurpegi topo egingo dute: aurpegi garbitu berriak eta garbitu premia duenak. Guztiok ere gure aurpegi onena ibiliko dugu festetan, baina ez ditzagun ahantzi etorri ezin diren aurpegi tristeak.

**inkestie**

**Oporretan Azpeititik irtetzeko asmorik ba al duzu?**



**Kontxi Gallego**

(etxekoandrea)



**“Hemen geldituko gara oporretan.** Bi haur txiki ditugu eta nahiko zaila daukagu hauekin kanpora oporretan ateratzeko”.

**Amaia Aranbarri**

(langilea)

**“Aurten oporretan Errioxara joango gara.** Ez gara urtero kanpora ateratzen oporretan, baina azkenengo bost urteotan beti ateraga gara kanpora oporretan, baina beti

**postako eztabaida**

**GAIA: Uztarria Kultur Koordinadoraren web guneko ‘eztabaidan’ atalean saihebidiaz eta aurkeztutako aukeren inguruan sesioan dabilta kide batzuk. Hona hemen gutun horietako sorta bat:**

**Ez da egokiena**

Azpeitian saihebidia egitea ez zait egokiena iruditzen. Gure herrian, arazoak konpontzeko konstruzioa bakarrik bultzatzen da. Horrelako obra handi bat planteatu baino lehen beste planteamendu batzuk aztertu beharra dagoela iruditzen zait. Egia da gaur egun Azpeitian trafiko pilaketa bat ematen dela, baina hori saihebidia egin gabe ere konpontzea badagoela iruditzen zait.

Eme

**Saihebidiko arazoak**

Bat bihotzarekin pentsatzea da, eta bestea buruarekin. Nik neuk jendearen autodependentzia jaisteko modurik ez dut ikusten. Jendea Sanjuandegitik kalera autoz joaten bada, nola joango da ba Landetara bizikletan? Neu bizikletan asko ibiltzen naiz, baina afizio bezala. Bestela, autoa erabiltzen dut leku guztietara joateko. Ez zait iruditzen trafiko gehituko denik Azpeitian saihebidia egiteagatik. Lehen ere, Euskal Herriko herrietatik auto gehien Azpeitian daukagu, eta gaur egun kaotiko samarra da Azpeitiko herria gurutzatzea. Azkarateko errepidean tunela egin zenean denak kexu ziren, baina gaur egun inor ez da gogoratzen horrekin eta gustura joan ohi dira autoz bertatik. Eta Azkoitian saihebidia egiteak ere mesede izu-

garria egin du. Niretzat, irtenbiderik egokiena Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu duen Landetako saihebidia da: industri trafikoa herritik aldentzen du eta gune industrialera bideratzen du.

Ni

**Lur azpitik**

Denok pentsatu beharra daukagu zein nolako herrian bizi nahi dugun, eta nola, oinezko eta bizikletei lehenasuna emanaz edo herria hartuko duen autoz betetako saihebidia eta kaleekin. Ni autoz, oinez, bizikletan eta motoan ibiltzen naiz. Dena den, uste dut Azpeitian dagoeneko gehiegi motorizatuta gaudela eta beste pentsakera bat izan beharko genukeela. Bihotzarekin pentsatuta inork ez dugu saihebidirik nahi. Buruarekin pentsatuta, zerbait egitekotan Landetako biribilgunetik hasi eta Txerloiko biribilgunerainoko lur azpiko pasabidea egitea proposatzen dut. Zalantzarik gabe, hori da irtenbiderik onena. Lur azpiko irtenbidea ingurumen aldetik perfektua da. Era horretan, Iraurgiko bailarak beti bezalako ingurumen paregabea izango luke. Egunen batean zerbait egitekotan irtenbide hori ere kontuan izan beharko litzateke. Zer iruditzen zaizue Azpeitiarentzat lur azpiko irtenbide hori?

Azpeitiyen azpitiken



## UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTAK

### 1. GALDERA: Nora joaten zara hondartzara?

- Zumaiara: %74
- Getarira: %3
- Zarautzera: %5
- Oriora: %12
- Beste norabait: %1
- Inora ere ez: %4

## Roberto Olaizola

(langilea)



**“Urtero joaten naiz Azpeititik kanpo oporrak pasatzera. Donostiara joan ohi gara oporrak pasatzera.**

Azken urteetan beti leku berera joaten gara”.

## Amaia Izagirre

(ikaslea)

**“Gustura joango nintzateke norabait, baina abuztuan etxean geldituko naiz. Aurten**

irailerako azterketa dezente ditut eta uda ikasten pasatuko dut. Hala ere, noizean behin hondartzara joateko asmoa dut, eta behin azterketak egin ondoren kanpina hartu eta Pirinioetara joango naiz.

## Ranjana Priya

(langilea)



**“Bai, normalean saiatzen naiz kanpora ateratzen oporretan. Azken urteetan beti joan izan naiz**

nonbaitera, egun batzuk igarotzera. Aurten Txekia aldera joatea pentsatzen dut”.

leku desberdinetara joaten gara. Oporrak Azpeititik kanpo igarotzen saiatzen gara”.

## Isabel Loinaz

(ebekoandrea)



**“Bai, normalean norabait ateratzen gara oporretara. Urtero-urtero joaten gara**

oporretara. Aurten Benidorm-era goaz. Umeekin hondartzara joaten gara, bestela aspertu egiten baitira. Lehen umerik ez genuenean eta mendi aldera gehiago joaten ginen, baina orain hondartzara joanohi gara”.

“Trafiko pilaketa badago, baina saihesbidea egin gabe ere konpondu daitekeela uste dut”

Eme

“Saihesbidea orain beharrezkoa ez bada ere, urte batzuetara beharrezkoa izango da”

Jon

“Saihesbidea egitea ez da irtenbide onena, baina, dirudienez, erabakiak ez du atzera bueltarik”

Bat



## Etorkizunera begira

Nik ez dakit zein den onena. Hala ere, iruditzen zait saihesbide berria orain beharrezkoa ez izan arren, hemendik urte batzuetara beharrezkoa izango dela. Bestela, ikusi besterik ez dago zenbat urte pasatu diren Azpeitiko lehenengo saihesbidea eta Azkoitiko egin diren bitartean. Pentsatzen dut inguruarekin bat datorrena izango dela aukerarik onena. Etorkizunari begira proiektu horiek kontuan izaten hasi behar dugu, eta denbora kontra dugu. Hala ere, normala den bezala, eragin handia izango du saihesbide berri batek herriaren etorkizunean. Orduan,

onena dugu ahal den era arrazionalenean hartzea erronka berri hau.

Jon

## Landetako egokiagoa

Niri ez zait iruditzen saihesbidea egitea denik irtenbiderik onena, baina, dirudienez, erabaki honek ez dauka atzerako bueltarik eta ezagutzera eman diren bi proposamen horiek aztertu beharko dira. Niri iruditzen zait, dudarik gabe, kendu behar den saihesbidea Eskusta aldekoa dela: izugarrizko txikizioa egin beharko litzateke paisaia eta etxeak ere bota egin beharko lirateke. Landeta aldeko saihesbidea egokiagoa iruditzen zait, bai ingurumenaren aldetik eta baita industria aldetik ere.

Bat

## Guk sortutako arazoa

Egia da hemen esaten den guztia oso polita dela. Baina iruditzen zait badela garaia errealistak izateko. Azkenengo urteetan argi dago trafikoa asko ugaritu dela, eta ez kamioiena bakarrik, baita autoena ere. Gaur egun denok nahi dugu auto bat, ahal bada, ahal den azkarrena eta handiena, eta jakina da auto hauek ez dutela hegan egiten eta errrepideak behar dituztela. Beraz, niri iruditzen zait saihesbidea egiteko beharra guk sortutako arazo bat dela eta, zoritxarrez, horren ondorioak jasaten hasi beharko dugula hemendik aurrera.

Antzeta

**hausnartzen**

**GAIA:** 'Etxebizitzak Azpeitian'. Etxebizitza eskubide izanik, bermatua al dago? Babes ofizialekorik behar al da? Etxebizitza hutsekin zer egin? Alokatzeko aukeraz zer?...

**Oharra:** hurrengo zenbakian eztabaidarako gai berri bat plazaratuko du Uztarriak, eta irailean jakinaraziko du web orrialdean

## ALDE ZAHARRAREN BIZIBERRITZEA, BEREZKO NORTASUNA MANTENDUZ

**A**zpeitiko Alde Zaharraren egoera kaskarra aldatu nahian, bertako bizilagun talde bat lanean hasi ginen orain urte eta erdi, Zaharra Berri Alde Zaharreko Bizilagunen Elkartearen sortuz. Alde Zaharraren biziberritzea aurrera eramateko hirigintza, eta, noski, etxebizitzaren arazoa lantzea ezinbestekoa zela ikusi genuen.

**DIAGNOSTIKOA.** Gaur egun Alde Zaharreko etxebizitza askoren egoera oso kaskarra da. Zenbait eraikin hutsen egoera hain zen penagarria, goitik behera jausi egin direla. Beste batzuk, aldiz, nahiz eta jendea bertan bizi, erabat utzita daude (fatxadak, karrera, eskailera, teilatu, argi eta ur instalakuntzak,...). Bestalde, Alde Zaharreko etxebizitzaren erdia baino gehiago hutsik dago, eta honek ondorio tamalgarriak dakartza. Kaleko azpiegiturari dagokienez (zorua, zaborrontzi, aparkaleku, jolastoki, monumentu,...), zaindu eta berritu beharrean daude.

Alde Zaharrean bada kontuan hartu beharreko gizarte berezitasunik; orokorrean maila ekonomiko apaleko jendea bizi da, eta biztanleriaren zati garrantzitsu bat adinekoa da. Horren ondorioz etxe zaharren mantenua eta berritzea egiteko behar diren baliabideak lortzeko aukera eta motibazioa txikia da.

Alde Zaharreko etxejabe eta eraikuntza enpresen arteko ezin konpontzeak ere oztopo handiak jartzen ditu berrikuntza proiektuak gauzatzeko. Etxejabe asko bertan bizi ez denez, mantenu lanetan diru gutxi inbertitzen du, eta etxebizitza hauekin espekulatzeko saiatzen da. Bestalde, etxegileek ere merke erosi eta garesti saldu nahi dituzte etxebizitzak.

Aurretik aipatutako guztiari Udalak Alde Zaharra berritzeko erakutsi duen utzikeria gehituz gero, gaur egun Alde Zaharra aurkitzen den egoerarekin egiten dugu topo.

**IRTENBIDEAK.** Arazo horri aurre egiteko, Alde Zahar erakarri bat lortu behar dugu jendea bertara bizitzera etor dadin. Gure ustez, gaur egungo etxebizitzaren egoeraren azterketa bat egin beharko litzateke berritze plana diseinatu ahal izateko. Zenbait kasutan etxe zaharra berritzea izango da aukera, baina beste batzuetan egokiena bota eta bere ordez etxe berriak eraikitzea; betiere Alde Zaharreko nortasuna mantenduz. Etxea erosteko modua ez dutenei laguntza eskaini ahal izateko, ahaztu ezin daitekeen beste aukera bat egokitutako etxebizitzaren alokairu politika indartzea litzateke.

Erakartzeko politika horren baitan kaleak eta azpiegiturak gaur egungo beharretara egokitu egin beharko lirateke: gasa, zaborra, aparkalekuak eta abar. Bestetik, eguneroko bizitzan, kalean egin daitezkeen ekintzak indartzeko, parke, jolastoki, oinezkoentzako kaleak, erosketa gune erakarriak bihurtu, lurrazpiko aparkalekuak eraiki, edo eta bertan dauden kultur eta bilgune aretoak



(Soreasu, Basazabal, Sindikatu Zaharra,...) martxan jarri beharko lirateke. Azken finean, etxeak betetzeko Alde Zaharra bizigune eroso eta egokia bihurtu behar da.

**BALIABIDEAK.** Hori aurrera eramateko, Udalak ditu baliabideak eta erantzukizuna. Euskal Herriko zenbait herritan udalek bultzatutako ekimenen berri badugu, horien artean Tolosa eta Bermeo izan daitezke erreferentzia baliagarriak. Udalak martxan jar ditzakeen mekanismo garrantzitsuenen artean bi aipatu:

- Egoera kaskarragatik botatzen diren etxeen ordez, babes ofizialeko etxebizitza berriak eraikitzea. Era horretan etxebizitzaren salneurria asko merketu eta gazteei lehen etxebizitza lortzeko aukera emango zaie.

“ Alde Zaharreko etxejabe eta eraikuntza enpresen arteko ezin konpontzeak ere oztopoak jartzen ditu berrikuntza proiektuak gauzatzeko ”

Jon Aurrekoetxea

“ Giza talde batzuek lehentasuna dute Etxebiderek in etxebizitza eskuratzeko: ezinduek, guraso bakarreko familiek eta 35 urtez beherakoek ”

Etxebide zerbitzua



• Berritzea merezi duen etheen kasuan, berriz, laguntza hobekak lortzeko Alde Zaharra Errehabilitazio Integraleko Gune delakotan deklaratzeko eskakizuna egin beharko litzateke. Era horretan lor daitezkeen diru laguntzak bikoizteko aukera dago.

Herritarren kontzientziazio aldetik ere Alde Zaharrarekiko (berria ahaztu gabe) badaukagu zer ikasia; zaborrak ateratzeko jarritako orduak errespetatu, kaleetan lurrera edozer ez bota, ibilgailuak horretarako dauden tokietan bakarrik aparkatu, asteburuetak *desmadrearen* eraginez bazterrek puskatzeari utzi, bazter guztiak txixatoki ez daitezela izan, eta abar luze bat.

Jon Aurrekoetxea (Zaharra Berri Taldeko kidea)

## JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA ZERBITZUA

**E**usko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak Etxebide, Etxebizitza Euskal Zerbitzua du martxan. Informazioa telefono bat ere badu: 012 telefono zenbakia. Telefono horretan, etxebizitza gaietan interesa duen edonork informazioa, aholkularitza eta laguntza jasotzeko aukera izango du eta, era berean, etxebizitza eskuratzeko eskariak edota hura erosi (babes ofizialeko etxebeztzak), birgaitu (bai etxebizitzaren estruktura kanpotik edota etxebizitza barrukoak) edo alokatzeko (gero alokairuan jarriko den etxebizitza bat erosteko laguntza edota etxebizitza bat jabetzan izan eta alokairuan jartzekoa) laguntzak lortzekoak bideratu ahal izango ditu.

Etxebiden izena emateko bete behar diren ezaugarriak honokoak dira: azkeneko urtebetean Euskal Autonomi Erkidegoko herriren batean errolatua egotea, bere izenean beste etxebizitzarik ez izatea eta azken hamar urteetan etxebizitza erosteko laguntzarik jaso ez izana. Izena Kutzako bulegoren batean edota Donostian Andia kalea 13. zenbakian, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren bulegoan eman daiteke. Horietako lekuren batean, eskaera orria bete-ta, Nortasun Agiriaren kopia, 2001eko zerga aitortpenaren kopia eta errolda agiria entregatu beharko dira.

**ETXEBIZITZA ESKURATZEKO.** Etxebiden izena eman eta babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko, lehenengo kontua errolatuta dagoen herrian Etxebide bidez merkaturatuko diren etxebizitzak atera behar dira. Adibidez, lehenengo Azpeitian etxebizitzak egitekoak izan behar dira, babes ofizialekoak eta Etxebiderek bidez aterako direnak merkatura. Kasu horretan, zuzenean eta ezaugarriak betetzen badira etxe horien zozketan sartuko da azpeitiar hori. Azpeitian, etxebizitzarik ez bada irtetzen eta inguruko herriren batean zozketa egin eta soberan izango balira etxebizitza batzuk, haien zozketan sartuko da azpeitiarra. Baina kasu hori ez da inoiz gertatzen, orokorrean etxebizitzak bete egiten baitira.

Etxebiderek bidez alokairuan etxebizitza bat hartzeko gutxieneko urteko soldata 3.000,06 eurokoa (500.000 pezeta) eta gehieneko soldata 15.025,30 eurokoa (2.500.000 pezeta) da. Eta etxebizitza erosteko, berriz, gutxieneko soldata 9.015,18 eurokoa (1.500.000 pezeta) eta gehienekoa 33.055,67 eurokoa (5.500.000 pezeta) da.

Bestetik, giza talde batzuek lehentasuna dute etxebizitzak eskuratzeko; hala nola, ezintasunak dituzten pertsonak, guraso bakarreko familiek eta 35 urtetik beherako gazteek.

Etxebiden 377.159 gipuzkoarrek eskatu dute informazioa, eta izena emanda, berriz, 30.853 gipuzkoar daude. Zarautz-Azpeitia jardun eremuan Etxebiden eskaera egin dutenak 2.395 biztanle izan dira 2002ko ekainaren 30a artean.

Etxebide (Eusko Jaurlaritzako zerbitzua)

**Oharra:** Etxebizitza gaiaren inguruan Udaleko beste alderdi politikoei (EAJ eta EA) eta erakundeei (Azpeitia Lantzen) ere iritzia eskatu zaie. Baina Uztarriak ez du haien erantzunik jaso.



# NIK EUSKARAZ, ETA ZUK ZERGATIK EZ?

Iosu Goenagak herriko gaztetxoen euskara ezagupena, jarrera eta erabilera ikertu ditu 'Iturri Zahar' bekaren bitartez

## Iturri Zahar

Iosu Goenagak Beka Udal Euskara Patronatoak sortu zuen 1999an, Azpeitiko euskararen gaineko ikerketak bultzatzeko. Iosu Goenaga azpeitiar Soziologia ikasleak proposatutako lana aukeratu zuen epaimahaiak: Patxi Altuna euskaltzainak, Patxi Goenaga euskaltzaina eta egun Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza sailburuordeak, eta Pako Garmendia Deustuko Unibertsitateko Soziologia Fakultateko Dekanoak osatutakoak. Ikerketa uztailaren 11n aurkeztu zuen Iosu Goenagak lana, Aitor Gorrotxategi, Azpeitiko Udal Kultura Batzordeburuarekin batera.

● **GAIA:** Iosu Goenagak Eder Alkortarekin batera 1983 eta 1988 artean jaiotako azpeitiar gazteen euskara ezagutza, erabilera eta jarreraren ikerketa soziolinguistikoak egin du.

● **METODOLOGIA:** "Zeintzuk dira gazte hauen euskara ezagutza eta erabilera mailetan edo euskararekiko jarreretan topa daitezkeen desberdintasunak baldintzatu edo eragiten dituzten aldagaiak?", galderari erantzun nahi izan dio Iosuk. Ikerketa abiatzeko lau multzotan banatu ditu aldagaiak: gaztearen ezaugarri pertsonalak, familia mailakoak, eskola mailakoak eta komunikabide kontsumoaren inguruak.

● **DATU BILKETA:** Hiru metodologia erabili ditu: galdetegia, sakoneko elkarrizketak eta behaketa zuzena. Errolda 800 gaztetxok osatzen dute eta 350ek bete dute galdetegia, proportzionalki herriko ikastetxeetan banatuta. Elkarrizketa 19 laguni egin die: ikasleei, irakasleei eta gurasoei. Behaketa, kalean eta ikastetxean egin du.

● **EZAGUTZA:** Gaztetxoen hizkuntza ezaugarriak aztertzean, honako emaitzak atera ditu: bi gurasoak Euskal Herrian jaiotakoak dituztenak %80 dira; gurasoetatik bat Euskal Herrian jaioa dutena %12; eta biak kanpokoak dituztenak %8. "Bi guraso Euskal Herrikoak dituzten ia gazte denek euskara dute ama hizkuntza". Gaztetxoen %80ak errazago hitz egiten du euskaraz, %8ak gaztelaniaz errazago jarduten du eta %12ak maila berean hitz egiten du batean zein bestean. Bestetik, Azpeitiko gaztetxoek errazago jarduten dute azpeitiarrereaz (%90) batuaz baino (%1), eta %9 bietan modu antzekoan moldatzen da. Euskara ongi ulertu (%90 baino gehiagok), hitz egin (%90), idatzi (%83) eta irakurriren artean, datu baxuena idaztean ageri da.

● **ERABILERA:** Etxea da gaztetxoek euskara urrien erabiltzen duten lekua (%70ak etxean beti euskaraz jarduten du). Ikastetxean %80ak beti euskaraz egiten du eta %10ak gaztelaniaz baino gehiago euskaraz. Eskolaz kanpoko bestelako jardueretan, gaztetxoek %80a euskaraz aritzen da. “Jasotako erantzunen arabera bada gaztetxoek multzo bat beti erdaraz aritzen dena eskolaz kanpoko jardueretan”. Lagunartean, gaztetxoek beti euskaraz hitz egiteko jarrera azaltzen dute, oro har. “Lagunartean poloetarako joera azaltzen da: beti euskaraz edo beti erdaraz. Askatasunez hizkuntza erabilera aukeratzen duten eta elebakartasunak pisu handiena duen gunea da. Gazteek ez dute militantziaz egiten euskaraz, ez herri ekimen bat bultzatzeko, euskara bultzatu behar delako; euskararako joera barneratuta dutelako hitz egiten dute euskaraz”.

● **JARRERA:** Euskalduna izateko ezaugarri garrantzitsuena, gaztetxoek ustez, euskaraz hitz egitea da. “Osagai linguistikoari ematen diote garrantzia. Eta Euskal Herri mailan erantzunak ez doaz hortik; Euskal Herrian jaioa izatea eta horrelakoak gailentzen dira. Azpeitiko gazteentzat euskarak leku garrantzitsua duela ikusten da”. Ikerketan, Euskal Herriko hizkuntza etorkizuna gaztetxoek ustez nolakoa izan beharko lukeen jakiteko parada ere izan da: gaztetxoek erdiak baino gehiagok etorkizunean Euskal Herriak elebakarra izan behar duela dio; erdalduna baino euskaldunagoa beharko lukeela %35ak erantzun du.

Jarreraren arabera hiru talde osatu dira lanean.

● Bata, ama hizkuntza euskara dutenak eta euskaraz errazago mintzatzen direnak: “Euskararekiko ardura handiena adierazten dute eta lehentasuna ematen diote, elebakartasunaren aldeko joera dute”.

● Bigarren taldea, gaztelania eta euskara, biak ama hizkuntza eta bietan erosotasunez hitz egiten dutenak dira: “Euskararekiko jarrera positiboa agertzen dute, baina gaztelaniarengan arreta handiagoa jartzen dute”.

● Hirugarren taldean, ama hizkuntza gaztelania edo erdara eta erdaraz errazago aritzen direnak sartuko lirake: “Beste bi taldeen arteko zubia da. Baina gertutasun gehiago dute erdaraz erosoago hitz egiten dutenekin, lehen taldekoekin baino”.

● **SAKONEAN:** Sakoneko elkarrizketetan ikerketan kontuan hartu diren aldagaiak lau izan dira: jatorria, lagungiroa, ikastetxea eta auzoa.



Josu Goenaga, uztailaren 11n, aurkezpenean.

● “Jatorriaren arabera euskaldunek euskaraz eta erdal girokoek bi hizkuntzatan egiten dute, euskaraz eta gaztelaniaz; batzuek etxean erdaraz eta kalean euskaraz egiten dute eta, gainera, euskaldun zaharren moduan”.

● Lagungiroan, bereiztu egiten dira lagun koadrilak: batzuk euskaldunak dira eta besteak erdaldunak. “Integrazio auzia hizkuntza aukeraketarena da koadrila barruan. Gehiengoak jatorrian zein hizkuntza duten horretan aritzen dira. Baina erantzun kontrajarriak ere izan dira: euskaldunak erdarara jotzen dute eta beste kasu batzuetan integrazio arrazoiengatik erdaldunak euskarara jotzen dute”.

● Ikastetxeetan, bertan aurkitu duten giroagatik euskara erabiltzen dute edo gaztelaniarako joera gehiago azaldu da. “Iraugin, esaterako, Ikasberrin eta Urolan baino erdaldun kopuru handiagoa dago, eta B eredurako joera handiagoa ikusten da. Ikasberri ikusten da ikastetxe euskaldunena; agian, bertan dagoen giroagatik izango da”.

● Bizitokiaren arabera ere euskararen erabilerak badu gorabeherarik gazteen artean. Nekazal guneko ia gazte guztiek euskara erabiltzen dute. “Sanjuandegi, berriz, beste auzoengatik bereiztu egiten da. Sanjuandegin dago erdaldunen kontzentrazio handiena, baina integrazio prozesua ematen ari da azken urteotan”.

● **BEHAKETA:** Ikastetxeetan jolas orduan eta kalean gaztetxoak gehien ibiltzen den lekuetan egin dute. Ikastetxean %90ari euskaraz hitz egiten entzun dio losu Goenagak; %5ari euskaraz eta gaztelaniaz, eta beste %5ari gaztelerez. Herriko ikastetxeen artean, Ikasberrin %100ari euskaraz entzun dio, Urolan %95ari, eta Iraugin %70ari. Hezkuntza etapan arabe-

rako konparaketan, helduagoek bi hizkuntzen nahasketa gehiago egiten dute: D.B.H.n %85ak euskaraz, Lanbide Heziketan %100ak euskaraz eta H.Z.O.n %83ak euskaraz.

Herrian bost zonalde bereiztu dira ikerketan, SEIk erabiltzen dituen zonaldeak: Pablo VI.a ingurua da euskaraz gazteei gehin entzuten zaien gunea; ondoren, Alde Zaharra. Sanjuandegin du presentzia handiena gaztelarak. “Sanjuandegin atentzioa deitu zigun gazteak helduagoengana zuzentzen zirenean gaztelera erabiltzeko joera ghitzen zela”.

● **ONDORIOAK:** Familiak eta komunikabideek garrantzia handia dute.

● Familiak gaztetxoengan, hizkuntza transmisioan, erabileran eta sentsibilizazioan garrantzia handia duela ondorioztatu da ikerketan. “Euskararen erabilera helduetan baino altuagoa da gazteengan; batez ere, joera hori erdal famulietan gertatzen da. Euskara barneratzean erabilerak gora egiten du”.

● Gazteen komunikabide kontsumoaren azterketan ateratako ondorioa zera da: kulturalki gazteengan arreta txikia duela. “Euskaraz gutxi irakurtzen dute, erdarazko egunkariak irakurtzen dituzte ia denek. Telebista asko ikusten dute, eta, gehien, erdalduna. Azpeitiko gazteen komunikabideen kontsumoan, irratia da euskarak eremu handiena duena”.

● **AHULEZIAK:** losu Goenagak, ikertutako gaztetxoek multzoan dauden ahulezien inguruan ere jardun zuen aurkezpenean.

● “Lagun erdaldunak dituzten gazte euskaldunek erdarako joera dute, batzuetan alderantzizko joera agertzen bada ere”.

● Komunikabideen kontsumoan gazteen euskara erabilera, ezagutza eta jarreraren inguruan azaltzen den joerak ez du islarik. “Hutsune nabarmena dago euskarazko komunikabideen kontsumoan”.

● Azpeitira datozen etorkinak jatorri aniztetaoak dira gaur egun, eta jatorrizko hizkuntza askok ez dute gaztelera. Baina, Goenagaren iritziz, “etorkin hauek gertuago daude gazteleratik euskaratik baino. Errazagoa egiten zaie erdal komunitatearekin harremanetan jartzea”.

● Lan munduari erdal kutsua egozten zaio, eta gazteak eskolatik lan mundurako pausoa ematean, lan munduan euskararekin ohitzeak garrantzia dauka Goenagaren ustez, gero gazteengan ohitura aldaketa eman baitaiteke.

● Gainera, lehen hezkuntzan D ereduaren garrantzia eta Sanjuandegin esparru desberdinetan euskara sustatzeko egin beharreko ahalegina azpimarratu zituen. ●

udal erabakiyek

## Auzarazako biribilgunea egiteko lehen pausoak ematen hasi da Udala

Auzarazako biribilgunea (Loiolabidekoa) birmoldatzeko proiektuaren A fasearen barruan dauden obrak egiteko baldintzak eta lehiaketa martxan jarri ditu Azpeitiko Udalak. Ekainaren 21ean Alkatetzak lehen fasearen proiektuaren onarpena egitea eta presazko izaerarekin kontratazio espedientea onartzea erabaki zuen lehiaketa ireki bidez. Lehiaketarako aurrekontu oinarria 638.427,10 eurokoa da (%16 BEZari dagokiona gehituz,

102.148,34 euro). Era horretan, Azpeitiko Udalak gaur egun Loiolabideko bidegurutzea eta behin-behineko errotonda bezala jarrita dagoena birmoldatuko du. Halaxe erabaki zuen aurtengo Udaleko aurrekontuak onartu zituenean. Auzarazako errotonda, ordea, ez da bakarria izango. Sanjuandegiko bidegurutzean ere beste errotonda bat egitea aurreikusita dago Azpeitiko Udalean; gaur egun bidegurutze hori behin-behineko egoeran dago jarrita, Jose de Artetxetik Sanjuandegira edota Landeta aldera doazen autoak Loiolabideko biribilgunera bideratuz.

## Edu Muruamendiaraz

gurien...

dantzaria

### “Aurretik Azpeitira dantza txapelketetara etorri izan naiz”

**Neera Aranburu** / Uztailaren 13an Aukeran taldeak Sutargi ikuskizuna aurkeztu zuen Izarraitz Pilotalekuan. Taldearen sortzaile, ekoizpen zuzendari eta dantzari den Edu Muruamendiarazekin hitz egin zuen Uztarriak.

● **Noiztik zabilta dantza munduan?**

Ni dantzan oso gazte hasi nintzen. Zazpi urterekin hartu nuen parte lehen aldiz txapelketa batean. Handik hona denbora asko igaro da. Orain 37 urte ditut; beraz, 30 daramatzat dantza munduan. Une hauetan, Aukeran taldean nabil.

● **Nolakoa da Sutargi ikuskizuna?**

Sutargi ikuskizuna aurreko urteko uztailaren 12an aurkeztu genuen Donostiako Feria Antzerkian. Ordubete eta hogeita minutu irauten du, eta koreografia desberdinez osatuta dago. Mundu tradizioaletik gatoz baina koreografiak egiterakoan aldaketa batzuk egin ditugu, pauso desberdinak sartuz. Baina betiere tradizioa mantenduz. Jantzi eta musika aldetik ere dena berriro edo behintzat gauza desberdinak egin ditugu.

● **Koreografiak zeuk bakarrik egiten al dituzu edo taldean?**

Lehenengotik ni bakarrik hasi nintzen egiten, baina azken bolada honetan denok botatzen ditugu ideiak.

● **Lehenengo aldia al da Azpeitira etorri zarena?**

Aukeran taldearekin lehenengo aldia da. Aurretik, dantza txapelketetara etorri izan naiz, baina taldearekin lehenengo aldiz ez. ●



“Mundu tradizioaletik gatoz baina aldaketa batzuk egin ditugu”

## Saihesbidearen aukerak bi mila bisitari

**Idoia Mendizabal** / Gipuzkoako Foru Aldundiak Olazko Amaren Plazatzon jarri duen Azpeitiko saihesbidearen bi aukeren erakusketak lehen hilabetearen, ekainetik uztaila artean, bi mila bisitari izan ditu, arduradunek Uztarriari esan diotenez. Erakusketa abuztuaren 4a arte irekita izango da, goizez eta arratsaldez, eta epe horretan Foru Aldundian edota Azpeitiko udaltxean bi aukeren inguruko iritziak sartzeko aukera izango du edonork. Erakusketa zaintzen ari direnen hitzetan, “era guztietako iritziak entzun dira” hurbildu direnen artean. Baina hurbildu direnen arteko “iritzi orokorra” Azpeitian saihesbidea “beharrezkoa” dela omen da. Beste bisitari batzuek, norabide bakoitzean bide bakar bateko errepidea izan beharrean, norabide bakoitzean bi bide beharko lirakekeela edota aukera bietako bat eginda ere, hemendik urte batzuetara beste errepideren bat beharko dela ere esan dute, arduradunek diotenez. ●



Saihesbidearen aukeren erakusketa. / UZTARRIA

## 2002ko azokako errolda onetsi da

Udalak 2002ko azokako errolda onetsi du eta jendaurrean dago ikusgai abuztuaren 5a arte. Interesatuek aztertzeko eta egoki jotzen duten erreklamazioa egiteko aukera dute, idatziz udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorrean.



Azoka plaza. / UZTARRIA

## Udalak kale garbiketarako bi langile hartzeko oinarriak onartu ditu

Azpeitiko Udalak kale garbiketarako bigarren ofizialeko bi lanpostu betetzeko lehiaketa-oposizio libreko oinarriak onartuta ditu. Bi lanpostu horiek lan kontratu mugagabea izango dute. Plaza horiek euskarazko lehen hizkuntza eskakizuna dute ezarria, eta derrigorrez EUFALEBAREN zazpigarren ordain-sari orokorraren maila dute jarria. Oinarriak, ekainaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

## pertsonajie



## Gorka Karapeto

Gorka Karapeto uztailaren 7an, Alcalá Henaresen (Madril) Espainiako Kopako bigarren proban bosgarren gelditu zen. Hurrengo proba —eta Espainiako Kopako azkena— Marbellan izango du. Aurten Euskal Herriko eskalada txapelketan bigarren gelditu zen. Karapetok 21 urte ditu eta

14 urterekin hasi zen eskalatzen. Haitzean eskalatzea du gustukoen, eta horretan ere maila hartzen ari da. Gaur egun, aurretik landutako haitz bideetan 8C+ da haren maila, eta lehen aldiz iltzen den haitz bide batean 8A+ egitea lortu zuen (orain arte bere mailarik altuena), uztailaren 14an, Huescan. Azpeitiko eskalatzailleek Landeta auzoan duten lokalean entrenatzen da. ●

## zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



**ERANTZUTEKO EPEA:** Irailaren 18a (asteazkena)

**HELBIDEA:** Uztarría, Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

**AKATSA ADIERAZI** (idatziz edo boligrafoz):

**IZEN-ABIZENAK:**

**TELEFONO ZENBAKIA:**

**IRABAZLEARENTZAT SARIA:** Egaña jantzidendako erosketa txartela.

## AURREKO ARGAZKIYE...



## ...ETA SOLUZIYUE




## IRABAZLIE: Naiara Otaegi



Naiara Otaegi izan da 31. garailea. Aintzin bitxi dendak emandako opari bat irabazi du. Argazkian, Naiara Otaegi irabazlea —ezkerrean— eta Aintzin bitxi dendako Arantxa ageri dira.

“Ordekan ibiltzeko indarra badaukat, baina zailena lasterketako azken kilometroetan aurrean sartzea da”

**Andoni Aranaga**  
(txirrindularia)



Andoni Aranaga txirrindularia.

“Ez dut sekula bertsoarako aparteko gogorik sentitu. Bertsoak gustatzen zaizkit, baina bertsoan egitea oso zaila dela iruditzen zait”

**Jon Agirre**  
(rallyetako gidaria eta Joxe Agirreren semea)

## Azpeitia, abuztuan turistak hartzeko prest; informazio gunea ere ireki da Loiolan

**Nerea Uranga** / Azpeitiak ez du hondartzarik, baina hondartzatik gertu dagoen herri bat da. Eta azken urteetan Iraurgi Lantzeneko turismoko alorretik hainbat ibilbide antolatu dira, Azpeitia eta Urola bailara ingurualdera kanpoko turistak erakartzeko; *Hiru Tenpluen Ibilbidea*, kasu. Uztailean, turismorako informazio gunea bat ireki da Loiolan Saninazioren etxean, barruan, kanpotik gerturazten direnei Loiolako Santutegia, ibilbideak eta eskualdeko informazioa errazteko. Informazio gunea urriaren 13a arte irekita izango da, goizetan 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldetan 15:00etatik 19:00etara, astelehenetan izan ezik.

Gainera, Azpeitiko Parrokia ikusteko aukera izango dute he-

rrira gerturazten direnek, parrokiak atea irekita izango baititu abuztuan, astelehenetik larunbatera 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00ak arteko ordutegian. Bestetik, irailean Azpeitira eta Azkoitira bisita gidatuak egiteko asmoa dago. Bisita gidatu hauek Loiolako Basilikatik hasiko dira, eta informazio turistikoko gunera hurbiltzen direnek aurrez eskatu beharko dute hauetan parte hartzeko aukera.

Tren Museoak ere lurin trenetan Azpeitiko tren geltokitik La saoko tren geltokia arteko ibilbideak prestatu ditu, bertara hurbiltzen direnentzako.

Horrela, Gipuzkoa aldera oporretara hurbiltzen direnek Azpeitia ezagutzeko aukera izango dute. ●



Loiolan ireki da turismoko informazio bulegoa. / Nerea Uranga



**UROLA IKASTOLA**  
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

### KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g  
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 2265  
Fax.: 943 85 28 67  
E-mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

Perdilegi, 3  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70  
Fax.: 943 81 66 20  
E-mail: azpeitia@urola.hezitek.net



**AZPEITIKO IKASTOLA**  
**KARMELO ETXEGARAI**

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

### KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50  
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830  
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA  
(Gipuzkoa)



## motxien

### Itsasi taldearen liburua irailera atzeratu da

Itsasi Dantza Taldea uztailaren 27an zen aurkeztekoa 25. urteurrenako liburua, eta liburuarekin batera bideo zinta bat ere ateraz. Baina lanak atzeratu egin zaizkie, eta irailaren 14an aurkeztea erabaki dute Itsasikoek.

### Milagrosa Iruñea Cup 'kontsolazio' finalean garaile

Uztailaren lehen asteburuan, Nazioarteko Iruñea Cup Txapelketa jokatu zen eta bertan Milagrosa Ikastetxe-ko benjamin futbol taldeak *kontsolazio* finala jokatu eta irabazi egin zuen Iruñeko San Vicente ikastetxearen aurka (5-0). Hiru garaipenekin, berdinketa batekin eta bat galduta heldu zen finalera.



Milagrosako futbol taldea.

## uztailako bi irudiyek



NEREA URBANGA

**ERREKETA JOLAS PARKEAN.** Hartzubiko jolas parkea erre egin zuten uztailaren 6 eta 7 arteko asteburuan. Erabat kiskalita gelditu zen. Azpeitiko Udalak jolas parke berria jartzea erabaki du eta Saninaziyo jaietarako jarriko dute. Jolas parke hori eguraldi ona dagoenean bete-bete egin da egoten da.



LEIRE LARRIAGA

**KARTELAK LEHIAN.** Betharrametako elizan aurtengo antzerki topaketetako kartel lehiaketakoak ikusgai izan dira. Ikusleek gustukoena aukeratu eta bozkatzeko aukera izan dute.

Amenabar  
DENDA

gortinak, ohazalak,  
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA

Arana, 5  
AZPEITIA

ERLOJU  
KONPONKETAK

Tel.: 943 81 47 12

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...

Paper pintatuan aukera handia

URBISTONDO  
MARGOAK

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

Salbe Auzunea, 35 behea

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



AMAIIA TABERNA

*Pintxo bereziak eta giro jatorria*



Urritzkina, 943 150472 ♦ Erdi kale, 13

# MENDI BUELTAK LASTERKA

Jose Luis Albizuri,  
Azpeitian bizi den  
azkoitiarrak Aizkorriko  
maratoian 13. egin zuen

**Nerea Aranburu**

**A**zpeitian bizi den azkoitiarra da Jose Luis Albizuri. Beti gustatu zaio mendian ibiltzea. Orain dela hiru urte hartu zuen parte mendi maratoni batean, Anetokoan, eta harrezkeroztik beste hainbatetan parte hartu du. Azkena, Aizkorrikoan, uztailearen 7an. "Beti ibili naiz mendian, asko gustatzen baitzait. Aneton maratoia antolatu zutenean, atentzioa eman zidan eta ateratzea pentsatu nuen". Anetokoaz gain, antzeko maratoiak ere egiten dira; besteak beste, Navacerradan (Madril), Galarleizen, Gorbean eta Aizkorrin. "Denek bere berezitasunak dituzte. Gogorrena Navacerradakoa da. Aizkorrikoa, al-



Jose Luis Albizuri, bere bi semeekin. / N. A.

diz, teknikoagoa da, dena aldapa gora eta behera delako".

Aizkorriko maratoian 13. bukatu zuen, 230 partehartzaileetatik. "Kanpotik jende ona etorri zen. Horrelako probetarako gero eta jende gehiago prestatzen da". Jose Luis Albizurik bazuen kezkarik irten aurretik: "Bi aste lehenago 100 kilometroko lasterketan parte hartu nuen eta denbora gutxi neukan errekuperatzeko. Lehen 30en artean espero nuen bukatzea".

**KALEAN ETA MENDIAN.** Ez du entrenamendu berezirik egiten. "Mendira joaten naiz, baina ez dut aparteko ezer egiten". Hala ere, mendira joatea bakarrik ez dela nahikoa uste du. Noizean behin kalean ere entrenatu behar omen da abiadura hartzeko. Eta alderantziz. "Jende asko kaleko lasterketetan ondo ibili arren, mendiko maratoietan ez da ongi ibiltzen. Orain urte batzuk mendi maratoiak ez ziren ezagutzen; gaur egun gero eta arrakasta handiagoa dute". Eta proba horietan segitzekoa asmoa du Albizurik. ●

“ Jende asko kaleko lasterketetan ondo ibili arren, mendi maratoietan ez da ongi ibiltzen”

Daukagun **kultura maite** dugulako,  
euskal eskola nazionalaren bidetik  
mundu zabalera.

**ikasberri**

AZPEITIKO IKASTOLA

loiola etorbidea, 26 - 20730 azpeitia - tel 943 15 12 46 - faxa 943 15 17 76 - [ikasberri@ikastola.net](mailto:ikasberri@ikastola.net)



# FESTETARAKO GONBIDAPENA

## SANTIYUEK SANINAZIYUEK

Baserriko jaia  
nagusi eta Mixel  
Lekuona  
omendua  
(21-23)

Mahaingurua:  
Saninaziyotako  
festak ikusteko  
lau era  
(26-29)



Agenda:  
Santiyotako eta  
Saninaziyotako  
ekitaldiak  
(30-32)



*irratxo irratxo irratxo irratxo irratxo*

*irratxo*

**ondo pasau festak!**

Jostailuak - Paperdenda    Tel. 15 05 30    Sanjuandei auzue

*irratxo irratxo irratxo irratxo irratxo*



**SUKALDEKO ALTZARIAK  
BAINUGELAK  
HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK**

PEREZ ARREGI, 9 Tfnoa. eta Faxa: 943 15 05 10

**bait**e


azpeitiko **uskar**a elkartea

ondo pasau  
saninaziyuek!

baite!

# SANTIYUETAN BASERRIKO GAIK, LEHIA ETA JAIA

Blonda behien  
feria, sagardo  
txapelketa,  
Idziabal ardi gazta  
lehiaketa eta txekor  
errea Santiyuetako  
jai nagusian



## Nerea Uranga

**B**aserri giroa nagusi izango da Santiyo egunean Azpeitian. Urtez urte indarra hartzen ari den jai da Santiyueta-koa. Bezperatik herriko hainbat harakin eta Euskal Okela Elkar-teko kideak txekor errearen prestaketa lanari ekinak izango dira. Ondoren, ganaduzaleek, buruak kamioietatik jaitsi eta errenkan jarriko dituzte azoka plaza atzean. Blonda arrazako behien lehiaketa da hori, eta aurten zazpigarren urtez egingo da; bi urtean behin egiten da Azpeitian. Blonda arraza jatorriz Akitaniakoa da, baina Euskal Herri mailan gune esanguratsua du Azpeitian, Azkoitian eta Zestoan behi arraza honen aziendak aurki daitezkeelako. Gorka Elortza EBAFeko (Euskal Herriko Blonda Akitania Federazioa) koordinatzailearen esanetan, "animalia polita eta mantsoa denez, jendeari gustatu egiten zaio".

## zenbakitan

### VII. GANADU FERIA

- 11 ikuilu eta blonde arrazako 130 buru izango dira. Tartean Azpeitiko hiru ikuilu: Agite, Eizmendi eta Gaztelu.
- 15 sail daude. 13 sail biga eta behiena, eta bi idiskoarena.

Sarien banaketaren ondoren enkantea egingo da. Enkante-rako izena emanda lau idisko eta bost urruxa daude. Idiskoak enkantean erosteko 90.000 pezetako diru laguntza izango da eta urruzak erosteko, berriz, 37.000 pezetakoa.

Plaza atzean ganadu feria ari den heinean, azoka plazan Idziabal izeneko Ardi Gazta Lehiaketa izango da. Gazta pintxoak dastatzeko eta etxerako gazta erosteko aukera ere izango da.

### SAGARDO TXAPELKETA

- Aurten berrikuntzen artean epaile lanetan, epaimahaiaz gainera, herriko elkarteetako hamar lagun ibiliko direla da.
- 20 sagardotegi bilduko dira. Azpeitikoak bakarra: Añota. Plazako neurriagatik sagar-

doteegien partehartzea mugatuta dago. Hiru sari banatu-ko dira sagardozaleen artean. Sagardozale bakoitzak 120 botila ekartzen ditu. Guztira, 2.400 sagardo botila ekartzen dira.

Aurten, gainera, Azpeitia inguruko artzainekin eta artzainen elkartearekin hartu-emanan izan duen Mixel Lekuona omenduko dute inguruko artzainek.

Azoka plazatik irten orduko, plazan 12:00etatik aurrera sagardozaleek parada bikaina izango dute. Arkupeetan hogeit sagardozale bilduko dira eta plazaren erdian, taula gainean epaimahaia izango da aurten herriratuko den sagardo onena zein den epaitzeko.

### SAGARDO PROBAK 30 URTE.

Sagardo Lehiaketak aurten 30 urte beteko ditu. Lehenengo urtetan Saninaziyo hirugarrenez egiten zen, baina gero Santiyo egunera aldatzea erabaki zen. "Sagardo eguna Santiyo egunera aldatzearekin asmatu egin genuen, gero eta indar gehiago hartzen ari baita jai egun hau", dio Iñaki Arregi *Portu*, urtero-urtero Sagardo Lehiaketa antolatzen aritzen den taldeko kide batek.

## Mixelen ezagunak

## Nicolas Segurola

(artzain eskolako tutorea)

**“Mixelek artzainen elkarte eta artzain gazta elkartearen sorreran aholkulari jardun zuen.** Izugarritzko lana egin du Mixelek Hegoaldean, bai gaztaren alde eta baita ardi latxaren alde ere. Mixelek Hegoaldeko artzainei denbora gutxian gauza asko erakutsi zizkigun”.

## Bixente Agirre

(Premietxeberri baserrikoa)



**“Batik bat, gaztagintzan lagundu izan digu Mixelek.** Gure etxean gaztagintzako ikastaro bat eman zuen hark. Ardi munduan lagundu zigun, baita behien kontuan ere. Aurrenekoz Iparraldera Mixelekin joan ginen, hangobehi ganadutegiak-eta ezagutzera. Han bertan duten gaztandegia, Lurberri —kooperatiba da— ezagutzeko aukera izan genuen”.

## Angel Alberdi

(Arauntza baserrikoa)



**“Artzain kontuan guri zerbait erakustera etorri zen.** Hemen, gaztagintzan erakusten jardun zuen, jendea martxan jarri zuen, kontabilitatea-eta artzainek eman genezakeela erakutsi zigun. Denbora dezente pasatu zuen Mixel Lekuonak gure artean erakusten. Iparraldeko artzainen elkarteko bileretan datuak jasotzen zituen eta hona ekartzen zizkigun, Iparraldekoak beti Hegoaldekoon aurretik ibili baitira gaztagintzan”.

## Mixel Lekuona

Apeza



XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTRUA

# “Gogotik joango naiz Azpeitira”

Santiyo eguneko Ardi Gazta Txapelketan omenaldia egingo diote Mixel Lekuonari. Artzainen artean lan handia egina da; tartean, Azpeitikoekin

**M**ixel Lekuonak 71 urte ditu. Biriaturkoa da izatez, gaur egun Makean bizi da, baina oraindik ere zenbait bisita egiten ditu bere sorterrira. Makean, bertako apezpea da. Euskal Herriko ipar eta hegoko artzainen lotura izan da, han jasotakoak hemen erakutsiz, artzainei gaztagintzan lagunduz. Azpeitian ere ibili izan da inguruko artzainei gaztagintza ikastaroak ematen. Orain urte batzuk omenalditxo bat egin zioten Azpeitia inguruko artzainek eta ganaduzaleek afari batekin. Ordizian, Idiazabal izeneko Ardi Gaztaren Txapelketan ere omendua izan zen Mixel, 1996an. Eta aurretik, Santiyotan Azpeitiko Idiazabal izeneko Ardi Gaztaren Txapelketan izango da omendua. Arrazoa: Mixelek artzainen elkartearen sorreran inguruko artzainekin eta gaztagintzan irakasle egin izan duen lana. Uztarria telefonoz egon da Mixelekin, huntaz eta hartaz mintzatzeko.

● **Izatez Biriaturkoa zara zeu Mixel...**

Bai, ni sortu naiz Biriatur, Bidasoa bazterrean, ondoan; Behobiatik laster, Alunda ondoan. Alunda etxe bat da Behobiatik laster dagoena, Bera aldera joaten den bidean. Nire aita zena Lesakan sortua da eta gure senideak Lesaka alde horretatik etorriak dira, baita Oiartzun aldetik ere. Biriaturkoa eta baserriko semea naiz, Agerrereko Borda baserrikoa; Behobiatik kilometro batera edo bira dago.

● **Baina orain Makean bizi zara, bertako apezpea zara.**

Bai, halaxe da. 1976an etorri nintzen hona, Hazparden, baserriko eskola profesionaletan eraikuntzan aritu izana naiz aitzinetik. Makeaz, gainera, Gerezieta eta Mendiondoko elizak egiten ditut. Ilaran dira hiru elizak, eta Hegoaldetik franko jende etorzen da, ezagutzen naute eta.

● **Zu apezpea eta baserritara izateaz gainera, Ipar Euskal Herrian aurrenik eta Hegoaldearen gero, Euskal Herriko artzainekin lan asko egin duzu, ezta?**

Bai, asko ibili naiz. Oraindik ere Hegoaldera asko joaten naiz ni, Azpeitia aldera gehienbat. Valentin Zamora apezpea, Igeldoko apezpea zen hura, baserriaz asko arduratzen zena, ezagutzen nuen. Valentin baserritar gazteriarren buru zen eta hark eraman nituen horra. Hark bazekien ardi zaintzan eta produktuetan aurreratuago ginela hor baino.

● **Gatzagiaren kontuan ere aurrerapenak hortik ekarri zenituen zuk... Ezta hala?**

Gatzagia ere hemen Iparraldean aurrerapen handia da. Nik eramaten nuen gatzagia horra. Ni neu hemen mugakoa naiz eta orduan aise pasatzen nuen, ez zegoen arazorik.

● **Iparraldean gaztagintzak indar handia izan du orduan.**

Bai, hemen beti gazna asko jan da. Behiaren gazna ere egiten da, baina mendi aldean ardi gaznari adore handiagoa zaio. Mendialdean eta Urepeleraino ardi gazna da preziatuena. Produktu nobleagoa da, ene ustez.

● **Artzainen kooperatiba bat ere baduzue Makean, ezta?**

*Berrria* izena eman genion kooperatibari eta arrunt ongi doa, handitzen ari da. Makean dago kooperatiba eta hurbil dut. Nik egiten ditut, gainera, artzainen eta behidunen ordainketak, nik sinatzen ditut gehienean. Gainera, kooperatibako presidentea hemengo alkatea da, ni baino gazteagoa da, baina oso lagunak gara. Kooperatiba sortua dutenak behidunak eta artzainak dira. Kooperatiba ederra da. Bada mugimendua, Baigorritik, Urepeletik eta kostalderaino biltzen du behien eta ardien esnea. Baina lehenasuna ardi gaznak du gure kooperatiban. Eta ardigintzan selekzioa egiten aspaldian hasia da eta beti hobetzen ari da, aharien aukeraketa eta aspalditik egiten baita.

● **Azpeitian Idiazabal Gaztaren Txapelketan egingo dizuten omenaldia pozik hartu al duzu?**

Maite dut Azpeitia. Aspaldian ez naiz izan hor, hiru eliza baditut eta saltsa askotan nabil, eta ez naiz nahi bezala ateratzen hemendik at. Gogotik joango naiz. Azpeitia ezagutzen dut aspaldian, han ibilia naiz eta jende franko ezagutzen dut: artzainak, behidunak, Imanol Lazkano... Lagun handiak ditut, bertsolariak ere bai, bertsozalea bainaz.

● **Iparraldeko Bertsulari Elkartearekin harremana izan al duzu beti?**

Orain ere bai. Hemen Bertsulari Elkarteak ez da hor bezain kopuru handikoa. Alkat, Laka... Gazteak ere badira, Jexux Arzalluz eta bere seme Amets —hau bertsulari ona da— Sustrai Colina... oso jatorrak dira. Makean badut etxe bat, aterbe antzekoa, eta askotan hemen egin izan ditugu bilerak, afariak...

*Nerea Uranga*

“Valentin Zamorak bazekien ardi zaintzan eta produktuetan aurreratuagoak ginela hemen”

“Azpeitia ezagutzen dut aspaldian, han ibilia naiz eta jende franko ezagutzen dut. Maite dut”

**iritzia**



**Bautista Jauregi**  
(Lurgintzako zuzendaria)

## ARTZAINENGANA HELTZEN JAKIN DU

**L**urgintza 1971n sortu zen, eta lehenengo urteak formazioari lotutakoak izan zituen. 1982an E.L.E. (Euskadiko Ardi Latxaren Elkarte) sortu eta lehen batzarrera Mixel Lekuona etorri zen, Ipar Euskal Herriko artzainen elkarteak lehendakariarekin batera. Aurretik harekin harremanetan zen Valentin Zamora, apaiza eta Lurgintzako sortzaileetako bat. Iparraldean 130 artzain eta 30.000 ardi zituzten. Hemen, 60 bat artzain eta 16.000 ardi zeuden. Iparraldean, elkarteak 1962an sortu eta 1975-erako lanean serio hasita zen.

Latxa ardia, Euskal Herriko ardi propioa da, eta hemen eduki dugu aurreratu eta egin beharra. Hori da elkartearen zailtasuna. Ardi latxaren errentabilitateko arlo desberdinetan egin ziren lehen pausoak: sanitatzen, genetika hobekuntzan, formakuntzan eta salmentan. Denak, betiko gaztari bere propietateak kendu gabe. Ez da izan gazta industrialak egitea helburua. Gazta berbera da; prozesua da hobe. Mixelek lanaren lehenengo fasea ondo bete zuen, elkarteari bultzada handia eman baitzion, eta hari esker lanaren zati handi bat egin zen. Esker ona besterik ez dugu egindako lanagatik, une zail haietan bere aportazioa oso beharrezkoa izan zelako. Denborarekin, sektorea profesionalizatzen joan da, jendea espezializatzen joan da. Eta gaur egun, dudarik gabe, jarritako helburuak oso ondo bete dira. 1998an, ikusita Mixelek berak beste eginkizun batzuk bazituela eta hark proposatu bezala ekoiztuak ginela, esker oneko afari bat egin zioten ELEk eta Lurgintzak. Orduan —eta beti— protagonista nagusiak artzainak izan dira. Geroztik, Mixel hainbat lekutan ibili da, baina hark jakin behar du ez dugula ahanzten eta berriro ateak zabalik dituela etorri nahi duenerako.

Azken batean, artzainengana heltzen jakin izan du Mixel Lekuonak. ●



Saninaziyo bezperako herri bazkarian 800 lagun inguru elkartzen dira azken urteetan. / UZTARRA

# ABUZTUAK 1A INDARTU NAHIAN

Idoia Mendizabal

**A**urtengo Saninaziyo-  
rako apustu berri bat  
egingo du Jai Herri-  
koiien eta Euskaldu-  
nen Aldeko Batzordeak: Sani-  
naziyo bigarrena, abuztuaren  
1a, indartu nahi du. Horretarako  
arratsaldea eta gaua artean eki-  
taldiak antolatatu ditu. Ekitaldiei  
hasiera 18:00etan Komuntzotik  
beherako goitiberarekin eman-

Jai Herrikoien eta  
Euskaldunen  
Aldeko Batzordeak  
abuztuaren 1a  
indartzeko apustua  
egin du aurten

go zaie, eta "bertan parte har-  
tzera animatzen direnek txapel-  
keta moduko bat jokatuko dute,  
betiere umore onean". Goitibe-  
ra bukatu ondoren, txarangaz  
lagunduta txosnen gunera kale-  
jira egingo da, eta txosnen gu-  
nean afari herrikoia egingo da.  
Afarian, herriko bertsolariak  
parte hartuko dute, eta han ber-  
sotara animatzen denak ere  
jarduteko aukerarik izango du.  
Afariari amaiera emateko, berri-

ro txarangarekin kalejira egingo  
da eta kalejiran koplak abestu-  
ko dira.

Abuztuaren 1ean ekitaldi ho-  
riek guztiak antolatu dituzte, au-  
rretik Saninaziyo bezperan an-  
tolatu izan dituzten bazkari he-  
rrikoia eta bestelako ekitaldiek  
indar handia hartu dutela eta,  
"beste pauso bat" ematearren.  
"Azken urteotan jai herrikoien  
bilakaeran urrats garrantzi-  
tsuak egin ditugula ikusi dugu,  
batik bat uztailaren 30ari begi-  
ra. Eta hori ikusita, jauzi berriak  
emateko garaia dela iruditu zai-  
gu eta abuztuak 1erako ekitaldi  
sorta antolatzea erabaki dugu,  
ekitaldi guztiak, jakina, jendea-  
ren parte hartzean oinarrituz",  
esan diote Uztarriari antolatzaileek. ●

## CENTERPOINT ACADEMY

*Ingelestegia- English School*

- HAURRENTZAKO KLASE BEREZIAK
- IKASTALDE TXIKIAK
- ORDENAGAILUZ ETA BIDEOZ  
LAGUNDUTAKO IRAKASKUNTZA
- INGELESEZKO LIBURUTEGI ETA BIDEOTEKA
- AZTERKETARAKO PRESTAKETAK.  
HIZKUNTZ ESKOLA OFIZIALA,  
CAMBRIDGE, TOEFL

### ZATOZTE!!!

Foru Ibilbidea, 7-1 ez.

Tel.: 943 81 65 03



Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

## ZALDIKO



**ESTETIKA ETA OPARIAK**

SALBE 15 BEHEA

TEL. 15 12 75





# Azpeitiko dendariak, zuen ondoan, zuen zerbitzura

## **CICLOS BENI**

Loiolabide Tel. 150629

## **LARRAÑAGA KIROLAK**

Arana, 3 Tel. 811365

## **ODRIOZOLA HARATEGIA**

Arana, 14 Tel. 811015

## **EGOKI JANARIAK**

Barrenetxe, 8 Tel.815490

## **ZABALA HARATEGIA**

Arrabal, 8 Tel.811671

## **NEREA MERTZERIA**

Arrabala Tel.812862

## **ZOKOA ANDREEN JANTZIA**

Arrabala Tel.815056

## **ARKUPE KIOSKOA**

En. Nagusia Tel.815207

## **AGIRRE OPARIDENDA**

Erdi Kale, 1 Tel.811325

## **FURUNDARENA OINETAKOAK**

Erdi Kale, 9 Tel.811143

## **URIA ALFONBRAK**

Erdi Kale, 29 Tel.812337

## **AMENABAR JANARIAK**

Etxe-alai, 3 Tel.150065

## **SAN SEBASTIAN HARATEGIA**

Foru Ibilbidea, 4 Tel.811594

## **EGAÑA GOZOTEGIA**

Goiko Kale, 10 Tel.811885

## **JAKA JANARIAK**

Harzuba, 19 Tel.816549

## **ANDONI FRUITUDENDA**

Harzuba, 29 Tel.812502

## **AITZAKI KIROLAK**

J.A. Agirre, 4 Tel.150738

## **OTOLA KINKILADENDA**

J.A. Agirre, 7 Tel.811366

## **SANTI LAZKANO KIROLAK**

J. Artetxe, 1 Tel.811650

## **BALENCIAGA**

J. Artetxe, 10 Tel.813400

## **ERROTAUNDI OKINDEGIA**

Euskal Herria

## **MARTZALA OINETAKOAK**

Olazko Amaren Plaza

## **BELOKI HARATEGIA**

J. Artetxe, 21 Tel.151392

## **ARROSPIDE OINETAKOAK**

Loiolabide, 1 Tel. 811914

## **EMAITZ LURRINDENDA**

J.A. Artetxe, 11 Tel.813345

## **ORDULARI BITXIDENDA**

J.A. Artetxe, 10 Tel.815244

## **ARANTXA HAUR JANTZIAK**

J.A. Artetxe, 8 Tel.812429

## **BABESA GAZTE MODA**

Urbitarte, 9 Tel.151369

## **IRIS MERTZERIA**

La Salbe, 11 Tel.813298

## **IRATXO JOSTAILUAK**

La Salbe, 24 Tel.150530

## **ZALDIKO LURRINDENDA**

La Salbe, 15 Tel.151275

## **ICIAR ILEAPAINDEGIA**

Loiolabide, 19 Tel.810217

## **ARADI KIROLAK**

Olazko Amaren Pl., 3 Tel.150290

## **ZURI BELTZ JANTZIAK**

Olazko Amaren Pl., 10 Tel.816656

## **MATXIN ZESTOAK**

Pablo VI, 39 Tel.810116

## **UKABI ORDENAGAILUA**

La Salbe, 39 Tel.150101

## **LUR LORA DENDA**

Santiago, 11 Tel.150085

## **URKE ARGAZKIAK**

Urbitarte, 4 Tel.151287

## **UROLA BIDAI AGENTZIA**

Arrabal Tel.150804

## **M. GRAL . SEGUROS**

Pablo VI, 5 Tel.151649

## **COOP. SUKALDEAK**

Arana, 7 Tel.812309

## **URBISTONDO MARGOAK**

La Salbe, 35 Tel.815781

## **SOINU ELEKTROGAILUAK**

Okerra, 11 Zestoa Tel.147938

## **DUNPI JOSTAILUAK**

Erdi kalea, 3 Tel.151890

Foru ibilbidea, 3 Tel.813969

Saninaziyuek bizitzeko eta ulertzeko era asko dago herrian. Prozesioa, zezenak, txosnak, tabernak... Eta, azkenaldian, partehartzeari buruzko eztabaida dago

# FESTAK ULERTZEKO LAU ERA

**Testuak: Nerea Uranga**

Uztarria herri aldizkariak mahaiaren inguruan bildu dituen lau azpeitiarrak "herriko festa nagusiak" prestatzen ari dira egun hauetan, bakoitza bere erara. Uztaileko arratsalde batean, Sindikatu Zaharrean, saninaziyuek hitz egiten hasi dira Jabier Beobide, Loren Etxaniz, Iñaki Errazkin eta Iñaki Zubizarreta. Hor ere bakoitza bere erara.

● **Zer dira zuentzat saninaziyuek? Nola bizi ditu bakoitzak?**

**Loren Etxaniz:** Nik, orain arte, denak tabernan pasatu ditut; bizi, beraz, batere ez. Eta orain, niretzat saninaziyuek zezenak dira. Zezenaren bueltan egiten dut nik saninaziyuetako bizia.

**Jabier Beobide:** Nik, Azpeitiko Festa Batzordeko buru naizen aldetik, gaur egun desberdin bizi ditut. Antolaketa lanean jarduten dut; bai aurretik, eta baita festa ari den bitartean ere. Ahalik eta ondoen antolatzeko saiatzen gara. Egia da jende askok ez duela parte hartzen, baina festaren barruan parte hartzea askoz zailagoa da jai haue-tan.

**Iñaki Zubizarreta:** Nik, tabernari moduan,

festak ez ditut bizi ere egiten. Zeure munduan ibiltzen zara, *orbitatik* kanpo. Lanarekin bakarrik pentsatzen duzu, eta ez jaiarekin.

**Iñaki Errazkin:** Azpeitiko festa bat gehiago dira niretzat, beste festen artean bat gehiago. Zoritxarrez, Azpeitiko festen artean pasiboenak eta elitistenak dira guretzako. Herriarren partehartzeari begira (festan bertan eta antolaketa), lan gehien egiteko dauden festak dira saninaziyuek. Gure festa izaerari begira, egiteko gehien festa hauetan dago.

● **Zer alde on dituzte, zuen ustez, jai horiek? Eta ez hain onak?**

**Etxaniz:** Alde onak: kanpotar asko etortzen direla, izen bat badutela festek kanpoan. Alde txarra: oso serioak direla. Baina, hala ere, niri gustatzen zaizkit. Badaude beste festa batzuk, *desmadre* gehiago dagoena. Serioak dira saninaziyuek, baina gustatzen zaizkit.

**Beobide:** Azken batean, oso festa desberdinak dira karnabalak, saninaziyuek... Espektakulu gehiena saninaziyuetan dago, ikusteko aukera gehiena. Beste gauza bat da parte hartzeko aukerarena. Saninaziyuetan denetarik dago. Kritikak jaso izan di-



Ezkerretik hasita, Iñaki Zubizarreta tabernaria, Iñaki

tugu, gazteentzako ez omen delako ezer egoten, umeen kontuarekin ere hori esaten zen... Baina egunero dago gazteentzat, umeentzat eta helduntzat zerbait. Oso festa osoak dira, eta Gipuzkoa mailan pribilegiatu batzuk gara

**Zubizarreta:** Egia da saninaziyuek festa ederrak direla, baina egia da ere parte har-



in jai herrikoen aldeko batzordeko kidea, Jabier Beobide Festa Batzordeko burua eta Loren Etzaniz zezenzalea. / LEKE LARRABAGA

tzeko gauza gutxi dagoela. Saninaziyuek erakusleihen bat bezala dira. Dendetako erakusleihen ikusi egiten dira, eta saninaziyuetan horixe gertatzen da. Kale bat erakusleihen betetzen da, eta erakusleihen horiek ikusten joaten zara, baina parte hartu gabe.

**Errazkin:** Gure ikuspegitik, alde ona da,

oztopo guztien gainetik, jendeak festa herrikoen aldeko lana egin duela, eta gero eta indar gehiago hartu dutela antolatzen diren ekintza horiek, beste festa eredu baten aldeko jarrerak. Alde txarra: urteetan bizi izan garen eredu baten menpe gaudela, oso atzera geratu den eredu bat da saninaziyuena.

● **Argi dago, beraz, saninaziyuetan jendeak ez duela parte hartzen.**

**Etzaniz:** Bai, baina azpeitiarra bera ere ez da parte hartzeko jendea. Azpeitiarrari begiratzea gustatzen zaio, eta ez parte hartzea. Jendeari bere erara ibiltzea gustatzen zaio.

**Zubizarreta:** Baina begira San Inazio bez-



## Jabier Beobide

● Azpeitiko Udaleko Festa Batzordeko burua da gaur egun. Jaiak desberdin bizi ditu, beraz; antolaketan murgilduta.

“ Herritarrek iritzia eman behar dute bileretan, baina udaleko ordezkariak erabaki behar dute zer festa antolatu”

“ Egunero dago umeentzat, gazteentzat eta helduentzat zerbait. Oso festa osoak dira saninaziyuek”



## Iñaki Errazkin

● Jai Herrikoien eta Euskaldunen Aldeko Batzordeko kidea da. Saninaziyuetan “beste jai eredu bat” nagusitzea nahi dute.

“ Festa batzorde herritar ireki batek antolatu behar ditu jaiak, eta horrek emango die izaera partehartzailea”

“ Nagusiki, kanpoko eredu edota kultura baten isla dira saninaziyuek; sanferminetan horixe bera gertatzen da”

perako bazkari herrikoiarekin zer gertatzen den... Jendeak parte ere hartzen du, nahiz eta *pasota* batzuk beti izan garen.

**Beobide:** Egia da saninaziyuek eskaparate bat direla. Baina jendeari parte hartzeko aukera ere ematen zaio; aurten bi deialdi egon dira, baina jendea ez da parte hartzeko zalea.

**Errazkin:** Festa pasiboak dira saninaziyuek, festa elitistak. Zentzu batean, Azpeitiak oraindik ez du aldaketarik eman, frankismotik datorren eredu baten jarraipena dira, hein batean. Eta eredu aldaketa bat nahi bada, aukerak ere ireki egin behar dira. Egia da udalak bilerak egiten dituela, eta jendearen iritzia entzun ere bai; baina gero antolaketa udalaren esku bakarrik dago, eta hori ez zaigu egokia iruditzen. Jaien antolaketan parte hartzeko prest dagoen jendeari aukera eman behar zaio. Azken batean, festa batzorde herritar ireki batek antolatu behar ditu festak, eta horrek emango dio festei izaera herritarra eta partehartzailea. Udalak berak bakarrik egindako festetan partehartzea bultzatzea oso zaila da. Baina, guk badugu galdera bat: zenbateraino interesatzen zaie udalean festen ardura dutenei eredu partehartzailea bultzatzea? Festa herrikoien aldeko batzordeari dirulaguntzak emateko baldintza eta oztupoak jarri zaizkie, eta hori da, finean, udalaren jarrikeria festaren aurrean. Gustuko edo kontrolpean ez dutena ahal den neurrian baldintzatzea.

**Beobide:** Hori ez da horrela. Gainera, azpeitiarrok gainontzeko herritarrek baino festa gehiago ditugu, eta festa ezberdinak egiteko aukera daukagu. Gauza bat argi dago: azpeitiarrok oso tradizionalistak gara. Horrek ez du esan nahi frankismoaren herentzia denik gure festaren antolaketa. Bigarrena: festak festa behar du, eta festa ez da politizatu behar. Zenbaitek festak ere politizatu egin nahi ditu. Zuekin badugu desadostasuna, baina guk uste dugu udaleko ordezkariak herriak aukeratutako jendea garela, eta bakoitzak ditugun ardurak daukagula. Gainera, gu bilerak egiteko beti prest gaude; baina zuen ikuspuntutik, herriko festa batzordean herritarrek parte hartu behar dute festak antolatzen; gure ikuspuntutik, herritarrek iritzia eman behar dute antolatzen diren bileretan, baina gero udaleko hiru alderdien ordezkariak erabaki behar dute zer festa nahi ditugun. Eta hori ez da itxia izatea.

● **Orduan, ze mailatan bultzatu daiteke partehartzea? Bultzatzen al da?**

**Beobide:** Partehartzeak norberarengandik atera behar du. Norberak egon behar du borondatearekin. Beste herrietan jendeak dantza egiten duela? Igual bai, baina beste festekiko diferentzia handirik ez dute gurek.

**Errazkin:** Lehen ere esan dut: gure ustez, herritarren ekimenez antolatutako gauzak partehartzaileago izaten dira, horrek ematen die izaera hori. Santotomasetan herrita-

rrek muntatzen dituzte postuak, jende askok egiten du lan, jendea baserriarrez jantzen da...

**Lorentxo:** Horretan, neurri batean, ados nago, horrek berak lortzen duelako ambiente bat. Azpeitia *desastre* bat festa aldetik; baina batik bat jendea.

● **Saninaziyuek “festa espainolak” direla esan izan da askotan. Hala dira?**

**Zubizarreta:** Niri jende askok esan dit hori, baina nik ez dakit zergatik esaten duen jendeak hori.

**Errazkin:** Guretzat hala dira. Badago joera bat santiyoetan txapela jartzekoa, eta 30etik aurrera kanpoko eredu jartzekoa. Eredu konkretu hori bultzatzen da udaletik, eta beste eredu bat, guk neurri batean planteatzen duguna, baztertu egiten da; gainera, dirulaguntzak emateko baldintzak jartzen dira. Hori bera sanferminetan gertatu da. Gure ustez, nagusiki, kanpoko kultura edo eredu baten isla dira saninaziyuek.

**Beobide:** Txosnetan egoten da beste eskaintza bat, *klientela* mota batentzat. Olazko Amaren Plazatxoan beste bat, herriko plazan beste bat... Hiru mota desberdineko ekitaldiak baditugu behintzat. Txosnetan festa alternatibo bat muntatzen da, eta, gainera, udalak dirulaguntza ematen du, begira zer diodan.

**Errazkin:** Egia da badela euskal kulturarekin lotutako eskaintza ere, baina bigarren maila batean. Lehenetsuna kanpoko kulturari ematen zaio. Bertako kulturaren espre-

# oinatz

PLAZA ZENTRUA

Julian Elorza 1, behea - Tel. 943 81 50 38

Bidea digitala  
URBITARTE 4-BEHEA  
TEL. 151 287  
20730 AZPEITIA

# urke

ARGAZKI EN MOTO EMBROIDERAK

Ekimena, botila, jantziak  
eta besteak beste



anare  
ileapandegia

depilazioa  
masajea

Barrabatzeta TEL. 943 115 53



## Loren Etxaniz

● Zezenzale amorratua, gaur egun Kinttela Zezen Elkarteko kidea da. Zezenketetan ere parte hartzen du, zaldiaren gainean.

“Azpeitiarra bera ez da parte hartzeko jendea. Azpeitiarrari begiratzea gustatzen zaio, eta ez parte hartzea”

“Zezen-plaza oso itxita dagoela iruditzen zait. Herritarrentzat beste zerbait antolatzea ondo legoke”



## Iñaki Zubizarreta

● Tabernaria da. Saninaziyuek gustuko dituen arren, tabernan lanean ari denean festak ez ditu ia bizi ere egiten.

“Saninaziyuek erakusleiho dira. Erakusleihoak ikusi egiten dira, eta saninaziyuetan horixe gertatzen da”

“Gero eta gehiago, saninaziyuek 30era ari dira mugatzen, egun osoko ekitaldiak orduan antolatzen direlako”

## Tabernen ordutegia eta herriko jaiak

● Mahaiaren bueltan tabernari bat (Iñaki Zubizarreta) eta tabernari ohi bat (Lorentxo Etxaniz) izanda, atera behar zuen gaiak, eta atera zen. “Herri honetan, jaietan, zergatik derrigortzen da tabernaria ordu jakin batean taberna ixtera?”, zioen Etxanizek. Beste herrietako jaietan ez omen da halakorik, Etxanizen arabera: “Bergarako lagun bat badut, eta hura 12:30a aldera erretiratzeko da herriko jaietan, tabernaz taberna ibili eta gero. Ez diot taberna denak irekita egon behar dutenik, baina...”. Jabier Beobideren arabera, “arautegi bat dago, ez guk asmatutakoa... Eta gainera, jendea kexatu egiten da. Lo ere egin beharko du ba herritarrek?”. “Urte osoa dauka lo egiteko, festak ez dira lo egiteko”, Iñaki Zubizarretaren erantzuna. Azkenean, behintzat, eztabaidatu, eztabaidatu zuten ordutegiaren gainean ere, baina ez ziren ados jarri; bakoitza berearekin joan zen etxera. “Beste galdera bat —Errazkinen—: Txosnei zergatik kentzen zaie argia ordu jakin batean, zarata aitzakiatzat hartuta, artean kalean eta tabernetan egundoko zarata dagoenean?”.

sioak lehenetsuna izan beharko luke, santiyoetan eta saninaziyuetan, eta ez luke ezer alternatiboa izan behar.

● **Saninaziyuek dira herriko jaiak handienak, neurritz eta tamainaz?**

**Beobide:** Hori hala da, argi dago.

**Etxaniz:** Aurrekontu mailan eta muntaia mailan bai.

**Zubizarreta:** Bai. Baina, gero eta gehiago, saninaziyuek 30era ari dira mugatzen, egun osoko ekitaldiak orduan egoten direlako. Lehen 3 egun handi ziren, baina gaur egun ez da horrela. 30ean bazkaria, jokoa... antolatzen ditu jai herrikoien aldeko batzordeak, eta horrek badauka eragina giroan. Dena dela, jendearentzat ez dira izango herriko festarik gustukoena, nagusiak izan arren.

**Errazkin:** Gero eta gehiago jai iluntze partera mugatzen da, batik bat 30era, eta gu arlo horretan ari gara ahalegin bat egiten.

● **Zezenik gabe, saninaziyuek saninaziyuek izango lirateke? Zer eskaintzen diote jaiari?**

**Etxaniz:** Niretzat festak zezenak dira. Festa batzuk tabernarik gabe bezala lirateke, niretzat, zezenik gabeko saninaziyuek. Dena dela, iruditzen zait Azpeitiko zezen-plaza oso itxita dagoela. Beti ondo-ondo margotuta egon behar du, eta herritarrentzako beste zerbait ere antolatzea ondo legoke... Zezen-plaza gehiago esplotatu daiteke. Eta *Meseta Toril*-ekin gertatu zena ere hor dago. Jende baten interesegatik, eta serio-tasunagatik, egun batetik bestera *Meseta*

*Toril*-ekin moztea erabaki zen, eta hori udalaren aldetik gertatu da.

**Zubizarreta:** Udalak *Meseta Toril* kentzeko apostua egin zuen, eta hori hanka-sartze bat izan zen.

**Beobide:** Hori ez da horrela. Jendea bera joan da *Meseta Toril*-etik. Gaztea desberdina dator, beste sentsibilitate bat daukatelako... eta ez dauka zezenketara joateko ohiturarik. Zezenketan kontrako kanpaina asko egin da, eta gazteek badute sentsibilitate hori.

Bestela, zezenik gabe, saninaziyuek herritik kanpo daukaten arrakasta asko galduko lukete. Kanpotik jende asko etortzen da zezenak ikustera, eta horrek jatetxeak betetzen ditu... Festak beste era batera antolatu beharko lirateke zezenik gabe.

**Errazkin:** Denok dakigu jende bati zezenketak gustatzen zaizkiola, baina beste bati ez. Zentzu horretan, galdera bat: zergatik ez da eztabaida bultzatzen herrian, erabakitzeko zezenketek izan behar al duten festen ardatza? Udalak zezenketen inguruan izan behar duen jarrerari buruz eztabaida bultzatu beharko litzateke. Gero eta sentsibilitate gehiago dago zezenketen inguruan.

**Beobide:** Gai hori ez da tratatu udalean, udalean gehiengo zezenketei buruzko oraingo politikarekin ados dagoelako.

**Etxaniz:** Azpeitian jendeari gustatu egiten zaio zezenetara joatea, eta hori horrela da. Hori kenduz gero, Azpeitiari min handia egingo litzaioko. ●

TABERNA



Teléfono: 943 151086  
Enparantza Nagusia

Lore Sortak  
Koroiak  
Lore Apaingarriak

Etxeetarako  
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87  
Loiola-Bide 25 - AZPEITIA

ostadar optika  
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

ODRIOZOLA ARDOAK

Julio Urquijo, 18  
Tfnoa.: 85 00 11  
AZKOITIA

Iñaki Azpiazu, 5  
Tfnoa.: 15 13 16  
AZPEITIA

As. At. Az. Os. Os. La. Ig.

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    | 30 | 31 | 1  | 2  | 3  | 4  |
| 5  | 6  | 7  | 8  | 9  | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |    |

## UZTAILAK 25 (osteguna)

### ● GOIZ ERESIA.

Herriko Musika Bandaren eta Izarraitz Txistulari Taldearen goiz eresia. 09:00etan.

### ● PILOTA.

Ilunpe Elkartearen XVIII. Pilota Txapelketa, Cesar Valverde Saria. 10:30ean. Frontoi Txikian.

### ● MEZA NAGUSIA.

Meza. 11:00etan. Soreasuko Sebastian Donearen Parrokian.

### ● AURKEZPENA.

Iraurgi Saskibaloi Taldearen 25. urteurreneko liburuaren aurkezpena. Ondoren, Iraurgiko 25. urteurreneko bazkaria. Loiola Hotelean.

### ● SOKATIRA.

Euskal Herriko Lur Gaineko Sokatira Txapelketa. 11:00etan, Loiola Hotelaren ondoan.

### ● GANADU FERIA.

Blonda arrazako ganadu erakusketa eta txapelketa. sari banaketaren ondotik enkantea. Foru Ibilbidean, azoka plaza atzean.

### ● ARDI GAZTA TXAPELKETA.

IV. Ardi Gazta Lehiaketa, Idiazabal jatorri deituraren artazi gazten txapelketa. Eta Michel Lekuonari omenaldia.

### ● SAGARDO LEHIAKETA.

XXX. Sagardo lehiaketa. Eta txekor errea. Trikitilariak eta bertsolariak eta Itsasiko Tuntturroak. 12:00etan, plazan.

### ● LURRIN TRENA.

Lurrin Trena Azpeitiko Tren Geltokitik Lasaora. 12:30ean.

### ● KALEJIRA.

Udal Musika Bandaren kalejira. 17:30ean.

### ● DESENKAJONAMENDUA.

Azpeitiko Zezen Zaleak S.L.ek antolatuta, desenkaionamendua. 18:00etan, Zezen-plazan.

### ● KALEJIRA.

Los Zumai txarangarekin kalejira. 19:30ean.

## uztailak 27 (larunbata) • 22:30 • Izarraitz Pilotalekuan



**LUAR NA LUBRE TALDEA.** Luar Na Lubre talde galiziarrok folk musika kontzertua eskainiko du, Itsasi Taldeak antolatu duen 25. urteurreneko ospakizunen barruan, eta Azpeitiko Udalaren laguntzarekin. Kontzerturako sarrerak Kutxazainetan daude salgai uztaillaren 26a arte (12 eurotan). Egunean bertan Izarraitzen salduko dira sarrerak 15 eurotan.

## uztailak 30 (ostartea) • 12:00 • Enparantza Nagusian



**TXUPINAZOA.** Saninaziyo festei hasiera emanez udal txetetik lehenengo suziria botako da. Ondoren, Enparantza Nagusitik, Azpeitiko Musika Banda, Izarraitz Txistulari Taldea eta Biasteriko Dultzinariak eta erraldoi eta buruhandien kalejira abiatuko da herriko kaleetan barrena.

### ● MUSIKA.

Oskorri taldearen emanaldia. 22:30ean. Plazan.

## UZTAILAK 26 (ostiratsia)

### ● JAIALDIA.

Saninaziyoetako jaialdia. 22:30ean, Izarraitz Pilotalekuan.

## UZTAILAK 27 (larunbata)

### ● SCALEXTRIC.

VI. Scalextric. 11:00etan eta 16:00etan, Frontoi Txikian.

### ● LURRIN TRENA.

Lurrin Trena Azpeitiko Tren Geltokitik Lasaora. 12:30ean eta 18:00etan.

## UZTAILAK 28 (igandea)

### ● GOIZ ERESIA.

Itsasiko Txistulari Taldea eta Banda Gazteak ongi etorria kanpoko dantza taldeei. 10:00etan.

### ● USO-TIROA.

Uso-tiroa. 10:00etan. Lapateko zelaietan.

### ● UMEEN KORPORAZIOA.

Umeen korporazioa, Parrokira. 10:45ean.

### ● MEZA NAGUSIA.

Umeen meza nagusia. Juan de Antxieta Musika Eskolako Abesbatzak. 11:00etan. Parrokian.

### ● ERRALDOIEN DESFILEA.

Erraldoiak, dultzainariak, Banda Gaztea, Itsasi Taldea, txistulariak, dantza taldeak eta erraldoien konpartsak. 11:30ean, parrokitik irtenda.

### ● ALKATE TXIKIAK.

Alkate Txikien ongietorria. Itsasi Dantza Taldeko dantzari txikien ekitaldia. 12:30ean. Plazan.

### ● ERRALDOIEN DANTZA.

Erraldoien dantza saioa eta sari banaketa. 12:45ean. Plazan.

### ● LURRIN TRENA.

Lurrin Trena Azpeitiko Tren Geltokitik Lasaora. 12:30ean.

### ● BURUHANDIAK.

Erraldoi eta buruhandiak. 16:00etan. Kaleetan zehar.

### ● KALEJIRA.

Kalejira eta dantzari txikien ekitaldia. 17:00etan. Plazan.

# Erremonte txapelketa eta esku-huskako profesionalak

● **EKITALDIA:** Erremontea Saninazio Txapelketa eta esku-huskako partidak ● **EGUNA:** Saninaziotan ● **ORDUA:** 23:00etan erremontea eta 22:30ean esku-huska ● **TOKIA:** Izarraitz Pilotalekua ● **ANTOLATZAILEA:** Azpeitiko Udala.

**Iñere Uranga/** Santiyotan eta Saninaziyotan pilotazaleentzako aukera bikaina izango da Azpeitian. Santiyo bezperan, uztailaren 24an, Saninazio Erremonte Txapelketa hasiko da. Txapelketan, zortzi erremontistak parte hartuko dute lehen saioan, Izarraitz Pilotalekuan: Zeberio II.a-Iriarte, Altuna I.a-Lizasoren aurka arituko dira aurreneko. Eta bigarren partidan, Ezkurrak-Etxeberria II.ak, Altuna II.a-Eizagirrek osatutako bikotearen aurka jokatu dute. Saninazio txapelketako finala abuztuaren 2an jokatu da finalerako gelditzen diren bi bikoteen artean eta bestelako partida bat ikusteko aukera izango da, Matxin II.a-Aizpurua bikotea Matxin III.a-Bereziartua-Etxeberria II.a hirukotearen aurka jokatu dute.

Esku-huskako pilota partiden artean: uztailaren 31n Aspeko pilotariak arituko dira, Otaegi-Zezeaga, Gonzalez-Apeztegiaren aurka eta Titin-Goñi III.a, Goñi II.a-Lasaren aurka. Abuztuaren 1ean, berriz Asegarceko pilotarien txanda izango da, Alustiza-Errasti, Koka-Peñagarikanoren aurka eta Olaizola II.a-Barriola, Unanue-Belokiren aurka.



## ● TXIRRINDULARITZA.

XXII. San Inazio Saria txirringularitza proba. 17:00etan.

## ● TXARANGA.

Herriko txaranga. 19:30ean. Kaleetan zehar.

## ● DANTZALDIA.

Triki Ta Ke taldearekin dantzaldia. 18:30ean. Plazan.

## UZTAILAK 30 (asteartea)

## ● TXUPINAZOA.

Jaiei hasiera emateko giza dorrea. Jai Herriko eta Euskaldunen Aldeko Batzordeak antolatuta. 11:45ean. Gero kalejira trikitilariak lagunduta.

## ● SUZIRI JAPONIARRAK.

Umeentzat. 12:00etan. Plazan.

## ● BAZKARI HERRIKOIA.

Jai Herriko eta Euskaldunen Aldeko Batzordeak antolatuta. 14:30ean. Plazan. Ondoren jolasak, sokatira...

## ● JAIALDIA.

Haurrentzat: jolasak, puzgariak,... 15:30ean. Plazan.

## ● BEDERATZIURRENA.

Julian Barrenetxea eta Parro-

kiko Abesbatzak arratsaldeko otoitzak eta salbea abestuko dituzte eta organujole Maria Dolores Oteiza Jaime Amenabarren gidaritzapean. 19:30ean. Loiolako Basilikan.

## ● SUZKO ERROBERAK.

Zaragozana su etxea. 23:00etan.

## ● KONTZERTUA.

Etzakit. Jai Herriko eta Euskaldunen Aldeko Batzordeak antolatuta. Txosnetan.

## ● GAU KLONIKOA.

Beatles, Rolling Stones... musika emanaldia. 23:30ean. Plazan.

## UZTAILAK 31 (asteazkena)

## ● GOIZ ERESIA.

Herriko Musika Banda, Basteriko Dultzainariak eta Izarraitz Txistulari Taldea. 09:00etan.

## ● UDAL KORPORAZIOA.

Udal Korporazioa Parrokiara. 10:10ean. Udaletxetik.

## ● PROZESIOA.

Prozesioa. 10:30ean. Herriko kaleetan barrena.

## ● MEZA SANTUA.

Meza Santua. Herriko apaizek, Gipuzkoako gotzain Juan Maria Uriartek, Julian Barrenetxea Abesbatzak, Parrokiako Abesbatzak eta Maria Dolores Oteiza organujoleak parte hartuko dute, Jaime Amenabarren gidaritzapean. Jose Maria Altunaren meza. 11:00etan. Parrokian.

## ● LURRIN TRENA.

Lurrin Trena Azpeitiko Tren Geltokitik Lasara. 12:30ean.

## ● KONTZERTUA.

Azpeitiko Musika Bandaren kontzertua, Jose Luis Frantzesena zuzendari dela. 13:00etan. Plazan.

## ● ZEZENEN AUKERAKETA.

Zezenen aukeraketa. 13:00etan. Zezen-plazan.

## ● HAUR PARKEA.

Gaztetxoentzat. 16:00etan. Plazan.

## ● ZEZENKETA.

Azpeitiko Zezen Zaleak S.L.ek antolatuta. Toreroak: Jose Ignacio Ramos, Uceda Leal eta Fernando Robleño. Cebada Gago ganaduzalea-

ren zezenak. Zezen-plazan.

## ● TXARANGA.

Txalaparta txarangaren kalejira. 19:30ean. Zezen-plazatik irtenda.

## ● ESKU HUSKA.

Aspeko pilotariak. 22:30ean. Izarraitz Pilotalekuan.

## ● SUZKO ERROBERAK.

Pirotecnia Zaragozana su etxea. 23:00etan.

## ● KONTZERTUA.

Marea taldea. Jai Herriko eta Euskaldunen Aldeko Batzordeak antolatuta. Txosnetan.

## ● MUSIKA.

Scala Royal. 23:30ean. Plazan.

## ● DANTZA.

Bulgariako Naiden Kirov Folklore Taldea. 23:30ean. Olazko Amaren Plazan.

## ● DISKO FESTA.

Dantza emanaldiaren ondoren. Olazko Amaren Plazan.

## ABUZTUAK 1 (osteguna)

## ● GOIZ ERESIA.

Izarraitz Txistulari Taldea, Azpeitiko Musika Banda eta

» Biasteriko Dultzainariak. 09:00etan.

● **AGINTARIEI HARRERA.**

Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariei harrera. 10:15ean. Udaletxean. Ondoren, korporazioan Loiolara abiatuko dira.

● **MEZA NAGUSIA.**

Herriko apaizek eta Juan Maria Uriarte Donostiako gotzaiak emana. Julian Barrenetxea Abesbatza eta Parrokiako Abesbatzak Jose Luis Frantzesenaren meza abestuko dute, Maria Dolores Oteiza organujolearekin, eta Jaime Amenabarren gidaritzapean. 11:00etan. Loiolan.

● **AURRESKUA.**

Itsasi Dantza Taldeak ohiko aurreskua dantzatuko die agintariei. 13:00etan. Plazan.

● **ZEZENEN AUKERAKETA.**

Zezenen aukeraketa. 13:00etan. Zezen-plazan.

● **HAURRENTZAT JAIALDIA.**

Gaztetxoentzat. 16:00etan. Plazan.

● **ZEZENKETA.**

Zezenketa Azpeitiko Zezen Zaleak S.L.ek antolatuta. Toreroak: Manuel Caballero, Antonio Ferreras eta Alfonso Romero. Martilella ganaduzalearen zezenak. Zezen-plazan.

● **KALEJIRA.**

Los Pasai txarangaren kalejira. 19:30ean. Zezen-plazatik irtenda.

● **DANTZALDIA.**

Tarantela taldea. 20:30ean. Plazan.

● **AFARI HERRIKOIA.**

Afari herrikoia herriko bertso-lariekin. Jai Herriko eta Euskaldunen Aldeko Batzordeak antolatuta. 21:00etan. Txosnetan. Ondoren kalejira txarangak lagunduta eta bertso-lariekin.

● **MARIATXIAK.**


Los Perez mariatxi taldea. 21:30ean. Kaleetan zehar.

● **ESKU HUSKA.**

Pilota partida profesionalak Asegarceko pilotariak. 22:30ean. Izarraitz Pilotalekuan.

● **SUZKO ERROBERAK.**

Astondoa su etxearen esku-



**GOITIBERAK.** Iaz egin zen aurrenekoz goitiberen txapelketa, Jai Herriko eta Euskaldunen Aldeko Batzordeak antolatuta. Aurten, bigarren aldiz egingo da. Arantzeta baserriaren paretik Etxe Alairako errepidean izango da txapelketa hau, eta iaz bezalaxe, herriko hainbat gazte eurek egindako goitiberekin jaitsiko dira. Ondoren kalejira izango da txarangarekin.



**ZEZENKETA ETA BURTZIKARIA.** Azpeitiko Zezen Zaleak S.L.ek antolatuta Igor Etxaniz *Kinttela* azpeitiar burtzikaria, Martilella ganaduzalearen zezenekin. Ondoren, Luis Miguel Encabo, Antonio Barrera eta *El Fandi* toreroak eta San Martin ganaduzalearen zezenak.

tik, 23:00etan hasita.

● **DANTZARIAK.**

Sahatsa Dantza Taldea. 23:30ean. Olazko Amaren Plazan.

● **MARIATXIAK.**

Sahatsaren emanaldiaren ostean. Olazko Amaren Plazan.

● **TXARANGA.**

Sugarri txaranga. 03:30etatik 07:00ak arte.

● **ZEZEN BOLAZTATUA.**

07:00etan. Zezen-plazan.

## ABUZTUAK 2 (ostirala)

● **GOIZ ERESIA.**

Izarraitz Txistulari Taldea eta Biasteriko Dultzainariak. 09:00etan.

● **ZEZENEN AUKERAKETA.**

Zezenen aukeraketa. 13:00etan. Zezen-plazan.

● **ZEZENKETA.**

Zezenketa Azpeitiko Zezen Zaleak S.L.ek antolatuta. Igor Etxaniz *Kinttela* burtzikaria, Martilella ganaduzalearen zezenekin. Luis Miguel Encabo, Antonio barrera eta *El Fandi*. San Martin ganaduzalearen zezenak. Zezen-plazan.

● **TXARANGA.**

Oria Txarangaren kalejira, zezen-plazatik irtenda. 19:30ean. Herriko Txaranga. Olazko Amaren Plazan.

● **MUSIKA.**

Gozategi Taldearen emanaldia. 20:00etan. Plazan.

● **SUZKO ERROBERAK.**

Zamorano Caballer su etxea. 23:00etan.

● **ERREMINTA.**

2002ko San Inazio Erreminta txapelketako finala. 23:00etan. Izarraitz Pilotalekuan.

● **FESTEN AMAIERA.**

Suziri eta danbatekoen bidez 2002ko Saninaziyo festen amaiera. 00:00etan.

Zeuon ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezker (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com





MERKEALDIAK %50

DESBERDINDU ZAITEZ!!!



DUEN ORDUTEGIAGATIK  
DITUEN ZENTROENGATIK  
ESKAITZEN DEN ARRETA BEREZIAGATIK  
DUEN KALITATEAGATIK

**AZKOITIA**  
Ibai ondo, 16  
Tel.: 943 852034

**AZPEITIA**  
Pablo VI, 20 behea  
Tel.: 943 150816



★ Arropak  
★ Oinetakoak  
★ Kotxeak eta sehaskak  
★ Haurrentzako tresna guztiak  
★ Zenbait erregali eta abar luze bat



Perce Arropi, 5  
711.943.01.09 Tel.  
BARKUTXOA

ondo pasau lanerazigiek!

**Subinas**

Perez Arregi Plaza, 9 beheak  
Tel. 943 15 00 17 Faxa. 943 15 71  
e-mail: info@decosubinas.com

*Arizari eta dekorazioa  
Barnetxe proiektuak  
Lantzetandak  
Oinarri eta alfonbrak  
Argiztatzea  
Bulegoen instalakuntza*



**Ondo pasau festak!**

COOP



**Legarda**

Arana 7 - 20730 - AZPEITIA  
Tel: 943 81 23 09 Fax: 943 15 73 78  
E-mail: coop@legarda.com  
http://www.legarda.com



**BERLONI**

# Iñaki Arrieta

Lagun Onak futbol taldeko nesken entrenatzaile ohia



## “Nesken futbolari ez zaio behar adinako garrantzirik ematen”

Iñaki Arrieta azpeitiarrak urte asko eman ditu nesken futbol taldean entrenatzaile bezala. Aurtengoa izan da, azkena, utzi egin baitio entrenatzaile lanari.

### • Noiz hasi zinen entrenatzaile lanetan?

Orain dela bederatzi urte. Orduan nesken talde bat ateratzea pentsatu zen. Guraso bezala, alaba neukan futboleko aritzen zena eta ezin zuten inor aurkitu taldea entrenatzeko. Ni, hasiera emateko prestatu nintzen. Gero, bederatzi urte igaro dira.

### • Orduan, alabaren aitzakiarekin hasi zinen entrenatzaile.

Batik bat, bai. Alabaren koadrilak ikastetxeen arteko txapelketetan jokatu zuten. Eta hamalau urterekin txapelketa kanpo gelditzen ziren. Orduan Lagun Onak-ek nesken talde bat osatzeko proposamena egin zuen, eta taldea osatu zen.

### • Beti nesken taldea entrenatzen ibili al zara?

Bai, eta nahikoa, gainera! Beti talde bera entrenatu dut. Denborarekin jendea aldatzen joan da, baina hori normala da. Gertatzen da nesken taldean maila bakarra dagoela eta nahi duten arte aritu daitezkeela jokatu. Nesken beste talde batek ere egon beharko luke.

### • Zergatik?

Hemezortzi urtetik aurrerako neska asko etortzen da. Entrenamenduak egiten hasten dira, baina denborarekin futbitora edo beste kirolen batera pasatzen dira, aukerak urriak direlako.

### • Zer moduz moldatu zara nesken taldean?

Oso ondo moldatu naiz. Ez dut inongo arazorik izan. Egia da, baita ere, ez dudala beste talderik entrenatu, baina gustura ibili naiz.

### • Zer desberdintasun ikusi dituzu nesken eta mutilen taldeen artean?

Ez dut desberdintasun handirik nabaritu baina, agian, adinean dago aldea. Hogei urterekin hasten ziren gazteek berehala izaten zuten laguntza. Segituan integratzen ziren taldean adin horretarako.

### • Nesken artean afizio handia al dago futbolerako?

Bai. Urtero-urtero neska dezente aurkezten zen, bost edo sei neska berri etortzen ziren taldera. Baina arazo nagusia taldean 22 jokalarik baino gehiago ezin direla sartu da. Orduan jende asko kanpoan gelditzen da eta futbola utzi egiten dute. Gainera, hemen, neskek oso maila handia dute. Baina beti gertatzen den bezala, nesken futbolari ez zaio behar adinako garrantzirik ematen.

### • Zer behar da entrenatzaile on bat izateko?

Garrantzitsuena gogoia izatea da. Ni mundu honetan sartu nintzenean gogo handiz ekin nion entrenatzaile lanari, eta bukaera arte mantentzen saiatu naiz.

### • Oroitzapenik onena?

Taldean eta taldekideen artean zegoen lagun giro ona. Edozein unetan afaria antolatuz; lehia guztiak ahanzten ziren.

## Bi entrenatzaile berri

• Bederatzi urte igaro eta gero, entrenatzaile postuari agur esan dio Iñaki Arrietak. Haren esanetan, “jada beste bat behar da taldean. Bederatzi urte igaro dira eta motibazioa ere behar da”. Haren lekua beste bi lagunek beteko dute. Alde bateatik, Mikel Salegi Kortatxo-k, urte askoan Lagun Onak-eko atezaina izan denak. Eta bestea, berriz, Markos Villanueva izango

da. “Ni ez naiz inor aholkuak emateko” dio Iñaki Arrietak, haien zat aholkuren bat eskatuta. Bientzat lehen urtea denez, “agian esperientzia falta” izango dute. “Baina nik gauzak lasai hartzeko eskatuko nieke, denborarekin ikasiko dutelako”. Lehen Iñakik aipatu bezala, “gogoia izatea da garrantzitsuena, eta gogo handiz hasiko dira biak”.

Nerea Aranburu



## ABERATSAK ETA POBREAK

**S**aninazioak gainera etorri zaizkigu, baina ez dut nire herriko jaiak ez diren hauei buruzko artikulu kostunbristarik idatzi nahi. Egingo dituzte hainbatek. Nik gure gizarteari buruz esan nahi dut zerbait.

Beti harritu izan nau ikaragarri ikusteak gure bizitza nola dagoen diruaren bueltan antolatuta; urteak aurrera doazen heinean, izutu ere egiten nau diruarekiko gure menpekotasunak. Derrotxe burugabe eta ero batean murgilduta bizi gara. Badirudi burua ez daukagula pentsatzeko, baizik eta inguruan ikusten duguna imitatzeke eta besteen astakeriak zorakeria handiagoeekin hausteko.

Ez dakit nondik hasi: ezkontzetan dabilen gastea eta luxuarekin, beharbada. Oso tristea da: gaur egun ezkontzak famoso eta handikien ezkontzen imitazio bihurtu dira, horko auto deskapotable, lore jartze, alfonbra gorri, tenore, soprano eta abar, eta gainera gero ezkonbidaia, ahal den urrunena, eta zer, eta hotel batean sartuta egoteko, bizpahiru eskurtsio eginez, paradisu artifisial batean. Gizonezkoak korbatatz denak, eta emakumeak Oscar sarietara balihoaz bezala... patetiko iruditzen zait.

Komunio eta bataioak ere antzeko bilakatu dira: gaur inork ez du 25 lagun baino gutxiagoko bazkaririk egiten, ahal den lekurik dotorenean. Olentzerotako opariak, etxean ditugun tresna elektrokoak, gure hozkailuak nola dauden ikustea, zer nahi huraxe daukagu eta zer nahi huraxe ematen zaie haurrei, eta nik uste haur-belaunaldi erabat tonto, kapritxoso, amorragarri eta aspergarria ari garela sortzen. Aberastasun materialak ito ditu haiengan, hain gazte direla, imajinazioa, sentiberatasuna, errespetoa, eskuzabaltasuna, eta hori krimen ikaragarria da. Gaur haurrak aspertu egiten dira; ni ez nintzen sekula aspertzen, eta nire garaian ez zen aspertzen zen haurrik. Gure gurasoek ere ezetz diote beraien garaian.

Dirua irabaztea da gure gizartean ondoen ikusita dagoen gauza. Diruak ez dio inori eskurik erretzen. Diruagatik sakrifikatzen ditugu bizitzako gauza eder asko; ordu extrak sartzeagatik geratzen gara lagunartean egon gabe, patxadarik gabe, geure zaletasunak aurrera ateratzeko denborarik gabe.

Ederki funtzionatzen duten trasteak etxetik botatzen ditugu, *modan* dauden berriak erosteko. Dirua da helburu nagusia gure bizitzan: nola gehiago irabazi, nola gutxiago gastatu, nola aurreratu, eta badaezpaba loteria erosi. Hemen diruaren aurka (eta dirudunen aurka) zerbait esatea Jainkoa ostiatzea bezala da. Tristeena da sistema kapitalista honi zein ondo moldatu zaion kristautasuna, gure gizartearen oinarrian dagoen erlijioa. Tipo pobre batek, inoiz ez etxerik erosi eta ez dirurik irabazi ez zuen batek sortutako erlijioa, tipo bohemio batek, ezagunen etxeetan lo egin eta ezagunek ematen ziotena jaten zuenak. Eta aberatsen aurka latzak esan zituena; zein urrun joan diren haren ondorengoak. Gaur aberatsak dira mezetara hutsik gabe joaten direnak, herrian fededunik sutsuenak bezala agertzen direnak, aberatsak dira apaizek gehien errespetatzen dituztenak, aberatsak... Jesusek bere ondoan onartu ere egingo ez lituzkeenak!

Zer egin dirurik pilatzen ez duena frakasatutzat daukan gizarte honekin? Hemen oraindik zerbait latza gertatuko da, mundua goseak hiltzen, gerrekin odolusten, hondatzen eta miseriak jaten ari den bitartean guk gure neurrigabeko eta burugabeko kontsumismoarekin jarraitzen badugu. Goizeko ogia lehorra egoten omen da, orain arratsaldekoa ere erosten dugu. Ondo al gaude burutik?

Bizitzeko era ezberdinak ezagutu, onartu eta errespetatu behar genituzke. Gure gizarte hau ez da humanoa, ezta albistegien aurreko samin hipokrita guztiekin ere.



**HILEKO GALDERA.** Zenbat azpeitiarrek eskatu dute aurten ere oporretara joateko kreditua?

**Uztarrria**

# Udalarekin hitzarmena sinatu gabe oraindik, eta murrizketa ulertezina Eusko Jaurlaritzan

**Uztarriaren datuak**

**Argitaratzailea:** Uztarrria Kultur Koordinadora  
**Egoitza:** Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerre (Azpeitia).  
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58  
**Posta elektronikoa:** uztarrria@topagunea.com

**Web orria:**  
[www.uztarrria.com](http://www.uztarrria.com)

**Posta kutxa:** 227, Azpeitia  
**Inprimategia:** Gertu  
**Tirada:** 1.800 ale  
**Lege gordailua:** SS-860/2000

**aldizkari honen laguntzaileak**



**AZPEITIKO UDALA**  
**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila**

Uztarrria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizuna



• **UDALA.** Orain dela zortzi hilabete (!) hasi zen Uztarrria Azpeitiko Udalarekin hizketan hitzarmenaren inguruan. Baina oraindik sinatu gabe dago. Uztailean milioi bat pezetako diru laguntza aurreratuko duela aginduo Uztarriari Udalak. Hitzarmena noiz?  
 • **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA:** Uztarriak liburuxkentangat, web gunearentzat eta herri aldizkariarentzat diru laguntza eskae-

rak eginda ditu. Aldizkariak 4.545 euro jasoko ditu —besteen erantzuna ez du jaso—.  
 • **EUSKO JAURLARITZA:** Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideentzako diru laguntza deialdia uztailean ireki zuen, eta abuztuaren 9a arte irekita izango du. Luzapena izango zela esan zuen; ez da hala izan, sektorearentzat 300 mila euroko murrizketa izan baita —50 milioi pezetakoa—. Ulertezina.

**albiste txikiyek**

**Pourra 2002: 83 apustu**

Uztarriak aurten bigarrenengo antolatu duen Frantziako Tourreko porran 83 herritarren apustuak jaso dira, herriko zortzi tabernatan. Beraz, aurrenen gelditzen diren hiru apustularien artean banatuko diren sariak honakoak dira: lehen saria, 498 eurokoa (82.860 pezeta); bigarren saria, 245 eurokoa (41.430 pezeta); eta hirugarren saria, 124,5 eurokoa (20.715 pezeta).

**Aurrekoa 31. zenbakia zen**

Uztaikeko Uztarrria Azpeitiko herri aldizkariaren alearen azalean, 32. zenbakia zela adierazten zen. Uztarriaren akats bat izan zen, 31. zenbakia zelako uztaikekoa, eta 32.a oraintxe bertan eskuartearen duzun hauxe da, abuztukoa.

**Hurrengo zenbakia, urrian**

Irailean Uztarrria aldizkaria ez da kaleratuko, abuztuan Uztarriako kideek oporrak hartuko baitituzte. Hurrengo, urrian.

**Elastikoak salgai**

Uztarrria.com elastikoak salgai daude tabernetan, Saninaziyo-tan Uztarriaren txosnan ere salduko dira, hamabi eurotan.

**Eliassen liburua, irailaren 28an**

Imanol Eliasi buruzko biografia irailaren 28an aurkeztuko du Uztarriak. Mailo Oiarzabal da egilea.

572 bazkide gara jada

## EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21,04 euro (3.500 pezeta) / Bestela harpidedun izan zaitetzke, doan (kontu korrontearena ez beste guztia bete)

**IZEN-ABIZENAK:** \_\_\_\_\_

**HELBIDEA:** \_\_\_\_\_

**HERRIA:** \_\_\_\_\_ **KODE POSTALA:** \_\_\_\_\_

**TELEFONOA(K):** \_\_\_\_\_ **POSTA ELEKTRONIKOA:** \_\_\_\_\_

**KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak):** \_\_\_\_\_

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2.a ezkerre • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarrria@topagunea.com

# BORROKALDIAN DIRAU 'KAFFE'-K

Espainiaren eta Frantziaren "ofentsiba errepresiboa" espetxeetan ere eragiten ari da

Iban Arregi

**G**arikoitz Etxeberria Kafe azpeitiar presoak Madrilgo Alcalá Meco espetxean dago, eta azken aldian borrokaldi mugagabea sartuta dago, hango beste euskal presoekin batera.

Eskatzen dutena, hauxe: alde batetik, espetxe horretako gazteen moduloan dauden euskal presoak handik ateratzeko —jipoiak jaso dituzte azken aldian—; bestetik, ziegatan banaka egoteko eskubidea (masifikazioari aurre eginez).

Kafe eta besteak *plante* eta *txapeo* bidez ari dira egoera salatzen. Horrez gain, uztailaren 8tik 14ra baraualdia egin zuten, prebentiboan dauden presoek "jasandako jipoiak" salatu asmoz —gose greban 6 kilo galdu ditu Kafek—.

Azpeitiko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek Uztariari esan diotenez, "azken aldian Espainiako eta Frantziako estatuetik Euskal herriaren kontra

daramaten ofentsiba errepresiboa espetxeetan ere ari da eragiten". Oro har txarrera egin du euskal preso denen egoerak, baita Alcalá Mecoaren ere. "Inpunitate osoz, eta kartzelarako funtzionarien eskuhartze zuzenarekin, kartzelatan dauden euskal herritarren egoera jasanezina bihurtu da". Dena dela, "presoek borrokan" segituko dutela dioten mugimenduko kideek, "orain arte bezala, euren eskubideen alde, eta baita Euskal Herriko prozesu politikoa laguntzeko ere".

"Egoera salatzen eta euskal presoek elkartasuna erakusteko", Azpeitiko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko mobilizazioak egin ditu, eta egingo ditu. Haien

arabera, "garrantzitsua da borrokaldian ari diren euskaldunei elkartasuna adieraztea, eta euskal presoek eskubideen defentsan pausoak ematea".

**PRESOEN MEZUA.** Kafek berak eta Alcalá-Meco euskal presoek iritzi artikulu bat bidali zuten ekainaren bukaeran prentsara (uztarria.com-en argitaratu zen). "Alcalá-Meco espetxeko masifikazioa" salatu zuten artikulu hartan. "50 pertsonantzako moduluetan 100 preso inguru daude", zioten euskal presoek artikulu hartan.

"Bizi baldintza duinak errespetatu bitartean" borrokan segituko dutela jakinarazi zuten euskal presoek ekainaren bukaerako artikulu hartan, "gure eskubideak errespetatuak izan arte". Orduz geroztik, baina, egoerak okerrera egin du (jipoiak eta zigorrak, tarteko).

Espetxeetako masifikazioa "ez da kasualitatea", Kaferen eta iritzi, "Espainiako Gobernuaren politika errepresiboaren ondorioa baizik".



Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak deituta bildu ziren herritarrak, 27rako deitzeko. / NOLIA URANGA

## Presoen aldeko eguna, 27an

Aurten ere Preso eta Iheslarien Aldeko Eguna egingo da Saninaziyuetan. Uztailaren 27an izango da eguna, larunbatean. Azpeitiko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek diotenez, "Euskal Herriko agente politiko-soziala diren heinean, Frantziak eta Espainiak presoek kontra gogor egingen dute. Erantzun beharra dago, kanpoan eta barruan". Larunbatean manifestazioa egingo da, 19:30ean, eta iluntzean afaria, azoka-plazan. ●

Egin publizitatea

**uztarria**

ACADEMIA DE FRANCES  
FRANTSSES AKADEMIA

apunta  
zaitez!

allons y 15 00 92

Bustinzuriko Arrabala. 12 - 1

*Clamendi*

*Altares de Oro*

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

**ORKATZ KULTUR ELKARTEA**

Erdi Kalea, 24

# INFORMAZIO ETA ENTRETENIMENDUA...

...egunero egunkari berezi eta desberdin bat zuretzat

ASTEAZKENERO:



OSTEGUNERO:



OSTIRALERO:



ARUNBATERO:



IGANDERO:



**Egunero Bizkaian.** Bizkaiko berriak bizkaieraz biltzen dituen gehigarria.

## Bizkaia

**Ostiralero Nafarroan.** Nafarroako albisteak biltzen dituen gehigarria.

## Nafarkaria

Egin zaitez harpidedun eta... **Kalitatezko zerbitzuaz gozatu!!**

### 1. Banaketa zerbitzu eraginkorra

Goizeko 08:00ak aurretik jasoko duzu EGUNKARIA etxean, lantokian, kioskoan...

### 2. Harpidedunaren txokoa

Antzerki, kontzertu edo zinemarako **sarrerak; afariak; egonaldiak; liburuak; diskoak... DOAN!**

### 3. Promozioetan abantailak

EGUNKARIAK kaleratzen dituen musika bildumak, liburuak eta bestelako **eskaintzak merkeago.**

### 4. Bezeroari arreta

Gurekin harremanetan jartzeko telefono bat duzu eskura: **902 300 223**  
[harpidetza@egunkaria.com](mailto:harpidetza@egunkaria.com)

**Egunkaria**

**datue**

**158**

haur jaio ziren 2001. urtean Azpeitian. Aurten, berriz, urtearen hasieratik uztailaren 9a arte 98 haur jaio dira herrian. Haurren jaiotza kopuruari buruzko bi datu horiek Azpeitiko Epaitegitik jasotakoak dira.

**esaldiye**

“Gatazka norbera dela onartzean egingo diogu gizarteari ekarpen iraultzaileena”

**Benito Lertxundi**  
(musikaria)

**esaerie**

“Abuztuaren erditik aurrera, eguna laburtu eta euliak gaiztotu”

**liburutik ttak**

“Moral bat egoteko, gizarte bat egon behar du. Gizarte bat egin behar dugu: gizartea eginez egiten baita moralak. Fronteen artean elkarriketa behar dugu. Gizarte bizitza baketsua ahalduko duen instituzioen eta lurraldearen berrantolaketa behar dugu (Gizarte Itun basikoa). Kultura edo jarrera berri bat, munduaren, historiaren, herriki-deen aurrean bizitzeko; eta geure buruaren aurrean. Diferentziarekin bizitzen ikasteko. Erlatibismoarekin ere (intelektualki eta moralki) seguru sentitzeko, ikaratu gabe. Are, ederra sentitzeko diferentzia, guztiaren erlatibismoa, askatasun ororen espazioa”.

‘Euskal Herria krisian’. Joxe Azurmendi. Elkarlanean argitaletxea. 1999. urtea.

**kontue da...** Imanol Elias Odriozola (idazlea)



**JABETZA,  
GUTXIREN ESKUETAN**

**XVIII.** mende amaiera eta XIX. hasiera da, Azpeitian, jabetzaren kontzentrazioa ongien agertzen den garaia, nahiz eta herria sortzearekin batera izan lehen urratsak. XVI. mendearen hasieran, herriko lurraldean 130 bat baserri ziren, eta gainontzeko lurraldea herritar guztientzaren. Baina, lurralde asko saldu beharrean aurkitu zen herria, gastuei aurre egiteko. Eta baserriak gehitzen joan ziren. 1541ean 200 baserri baino gehiago zeuden; 1649an, 320; eta 1830ean, 464. Harrigarria bada ere, gutxitzen joan zen jabe kopurua.

Era askotako zergatiak ziren hori gertatzeko: batetik, lurrak herriko Ahaide Nagusiek edo herritar bereziek erosi zituztela. Adibide bat Loiola etxean dugu: herria sortzean, bost baserri besterik ez zituen Loiola etxeak, eta

1834an berriz, 48 baserri, Granadako Dukearen eskutik maiztergoa bere eskuetara pasatzean. Ondasunak zituzten sendien arteko ezkontzak —era horretan maiztergoak sortuz— moztuko zuen euren ondasunak saltzeko bidea.

XVI. mendean, euren abizeneko baserriak saldu zituzten, aberastu nahian, eta aurkitu berria zen Ameriketara joateko. Garaiko eskribauen idatzietan behin baino gehiagotan aurkitzen dira abenturazale horien izen-abizenak, Indietan direla esanaz.

1834an, Lehen Gerrate Karlistan, kontribuzioa kobratzeko zerrendan esaten da 466 baserri zirela herrian, denen jabetza 126 pertsonak izanik. Baserri horietako 24 jabek bakarrik lantzen zituzten baserriko lurrak, gainontzekoak errentan izanik —%5,15 besterik ez

**garai bateko Azpeitiye** ...Maria Beristainek kontatua

**‘Tortoloxak’, ‘txorrorean’...**

Aiton-amonek ez zuten gaur egungo tramankulu modernorik jolasteko; askoz jolas sinpleagoekin dibertitzen ziren

**Ion Aranburu**

**G**aur egungo umeek ez dakite jolasten *Play Station*-ik edo teknologia modernorik ez duen jostailurik gabe. XXI. mendeko kontuak dira. Gure aiton-amonak, gaur egun beldurtu egiten dira horrelako tramankuluak ikusita, eta harrিতa gelditzen dira haurrek hauekin jolasteko duten trebetasuna ikusita. Gure aiton-amonek bestelako jolasak erabiltzen zituzten ondo pasatzeko. Hala dio, behintzat, Maria Beristainek, nahiz eta denbora askorik ez zuen izan jolaserako: “11 urterekin hasi nintzen lanean, ume zain, eta ez nuen denbora asko izan jolasteko”. Izan ere, garai hartan goiz hasten ziren lanean, eta ez zuten haurtzarora gaur egun bezala bizi.

Mariak Odria auzoan egin zituen ikasketak, 11 urte arte. Jaunartzea egin orduko lanean hasi zen. “Orduan, jaunartzea egiten zenean eskola ere utzi egiten zen, eta lanean hasi

behar izaten genuen. Gu 11 senide gara, eta ni naiz zaharrena. Anaiak ere norbaitek zaindu behar izaten zituen, eta niri egokitu zitzaidan lan hori; beraz, jolaserako denbora gutxi izan nuen”.

Gaur egun umeak eskolara joaten dira, baita auzoetatik ere. Baina Mariaren garaian auzoetan egoten ziren irakasleak. “Hiru hilabetetik behin baserri desberdin batean izaten genituen eskolak. Orduan hala izaten zen”. Baina eskolan egoten zen garaian lagunekin ibiltzen zen jolasean, haur guztiak bezalaxe. “Gu harrapaketa eta ezkutaketa ibiltzen ginen”. Gaur egun, haur asko aspertu egingo dira horrelako jolasekin, baina gure aiton-amonek oso ondo pasatzen zuten horrelako jolasetan.

Harrapaketa eta ezkutaketa ibiltzeaz gainera, *itxuka* ere ibiltzen ziren, baita *txorrorean* ere. Txorrorean, puxtarriak edo kanikak lurreko zulo batean sartu behar izaten zituzten; kanika gehien sartzen zituenak irabazi egiten zuen.





Elsoiaga auzoko baserri batzuk. / JUAN JOXE AGUIRRE

● **AZPEITIKO BASERRIAK.** Herriak lurra saldu zituenean, baserriak gehitu ziren. 1541ean 200 baserri baino gehiago zen, eta 1830ean 464 baserri.

jabetzako lurra lantzen zituztenak—. 1829an, 5.089 biztanle zituen herriak; bost urte geroago, askoz gehiago ez zituen.

Ez da harrizkoa egoera horretan nolabaiteko egonezin sozialak edo matxinadak sortzea, 1739an eta 1766an bezala.



Pilotan jolasean ezin aritu parrokan.

“ 11 urterekin ume zain hasi nintzen eta jolaserako ez nuen denbora askorik izan”

**Maria Beristain**



Beste jolas batzuetan ere jolasten zuten gure aitona-amonak, eta baita hauen aurrekoak ere. Jolas horietako bat *tortoloxetan* izenekoak zen. “Nik ez dakit jolas honetan nola jolasten zen, baina nire amak bazekien”. Guk *tortoloxak* bezala ezagutzen dugun jolas hori, beste toki batzuetan *sakaponak* bezala ezagutzen da. Jolas honetan jolasteko, arkume hezurak behar dira. Gehienetan hezurak kolore desberdinetan margotzen zituzten. Tortoloxek lau alde izaten zituzten: *asake*, *apone*, *akullo* eta *akarne* izenekoak. Pilota bat gora jaurtitzen zen, eta hori airean zegoen bitartean tortoloxari buelta eman behar izaten zitzaion, eta gora begira gelditzen zen aldearen izena esan behar zen. Jolas guztietan bezala, arau horiek betezen zituenak irabazten zuen. Noski, zenbat eta gehiago jokatu, orduan eta trebeagoak izaten ziren.

## xapo euskerie

Aitor Arruti  
Arantzazu Azpillaga  
(itzultzaileak)

### IRAKURTZEA ETA UDA

**U**ztarria.com gunean irakurketari buruzko inkesta bat plazaratu zen joan den maiatzean, “Zenbat liburu irakurri dituzu euskaraz aurtentzen?” galderari erantzuteko eskatuz. Emaitzak, egia esan, nahiko kezagarriak izan ziren gure irudiko. Jendeak ez du, nonbait, oraindik euskaraz irakurtzeko ohiturarik, edo arrotz egiten zaio gure hizkuntzan irakurtzea, edo xarma gehiago du beretzat gaztelaniak, ingelesak, frantsesak... geureak baino, edo auskalo zer!

Gertaera horren sustraietara jotzeko, irakurle bakoitzaren arrazoiak aztertzeak mehezko luke. Geuk entzundakoak besterik ez ditugu ezaugutzen, eta badira arrazoiak eta baita *aitzakia*k ere:

- “Nik letu dana erderaz egiten dinat”. Egia da adin bate-tik gorakoak, eskolan eta komunikabideetan ez duela gaztelania besterik ezagutu, baina orain euskarak dituen baliabideekin ez dago ohiturak aldatu besterik.

- “Neri orijinala letzie gustatzen zatek, itzulita asko galtzen dik-eta”. Ezta Shakespeare-ek gaztelania batuan idatzi izan balu ere! Oraingo itzulpen literario gehienak kalitate onekoak izanda ere, gaizki egindako batzuen zama astuna daramate gainean.

- “Ez zeukeat letzeko denborarik, motel!”. Baina seguru asko *Gran Hermano* ikusteko bai, ezta?

Uda garaian gehienok *aitzakia* gutxiago eta denbora gehiago izaten dugunez, aldatuko al ditugu inkestako emaitzak?

**osasune** Julian Bereziartua (medikua)



## ELIKADURA ETA AZALEKO ZENBAIT ARAZO (II)

**B**itamina C falta bada, pigmentazio zabalak, ultzerak eta horzoieta odoljarioak azaltzen dira. Gaur egun ez da horrelakorik ia ikusten; baina gauza bat esan nahi dut: kontsumitzen ditugun fruten artetik, kiwiak duela C bitamina gehiena.

Proteinaz aberatsak diren haragia, arrautza eta abar... gutxi jaten badugu, edemak, likidoen gelditasunak, batez ere oinetan eta orkatiletan, gris koloreko azalaren azpian, azaltzen dira. Gaur egun, zorionez, ezezaguna da egoera hau baina gerra ondoren esan ohi zena gogoan dugu: "Zenbat eta gutxiago jan, orduan eta gizenago".

Gure begien betazeletan azaltzen diren kolesterol biltegiak, dexantelasma palpebral izenez ezagutzen dira; kolore horiko orbanak azaltzen dira horrekin batera; nahiz eta arazo

fisikorik ez eman, antiestetikoak direlako, arazo sikikoak ekartzen dituzte. Soluziobide bakarra kirurgia da eta emaitza onak ditu.

Azukre gutxi hartzeagatik sortutako azaleko aldaketak, arraragoak dira oraindik. Baina, kasu bakan batzutan, diabetikoek, orban irregularrak eta nabarmenak izaten dituzte.

Nahiko sarritan, ikusi ohi ditugu pertsonak tofoak dituztenak; batez ere eskugainean azaltzen diren konkor borobilak dira; azido urikoak sortarazten ditu eta aurrera egin ez dezaten dieta egin behar da odoleko azido urikoa gutxitzeko.

● **C BITAMINA.** Falta bada, pigmentazio zabalak, ultzerak eta horzoieta odoljarioak azaltzen dira

**aldizkayek**



## LEHEN EUSKAL ALDIZKARI EROTIKOA

*Ostielak!* argitalpen berezi-tua atera du 26. zenbakian: *Pornolore* (lehen euskal aldizkari erotikoa) ale monografikoa. Aldizkariak hainbat atal ditu: sarrera, Jon Arano koordinatzailearen artikulua, hogeitau ipuin erotiko, zenbait artikulua, bi poema, Juan Martin Elexpuren aldizkariaren "apologia artikulua" eta Iñaki Olaizola *Sex Pittilingorri*-ko arduradunari eginiko elkarrietzeta. Testuaketa argazki ugarik osatzen dute *Pornolore*. Aldizkaria hiru euroko salneurrian jarri dute salgai, eta herriko liburutanda eta kioskoetan ere bada.

**gertuko pasadizue**

## AZPEITIKO ZEZEN MUTILAK

● **JUAN MARI IBARZABAL:** "Nahiz eta lana zezen-plazan hildako zezena zaldiekin kanporatzea izan, hirugarren zezenaren hilketa-oren ondoren dute nagusitasuna. Zezena arrasterako lotua dagoenean eta Aldalurren *Hileta Zortzikoaren* soinua entzuten den artean, zutik eta txapela eskuan egoten dira, isiltasun errespetagarrian murgildurik, 1841eko abuztuaren 1ean Azpeitiko zezen-plazan hil zen Jose Buenaventura de Laca banderilleroaren oroitzapenez".

'Azpeitia Iruditan' liburutik hartua. Azpeitiko Udala argitaratzailea. 2001. urtea.



**AIZPURU**  
AUTOAK  
**PEUGEOT**

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

**estetikako azken teknikak**

Enparan, 15-1  
Tel. 813898

HITZEIN  
HITZEIN  
HITZEIN

Izaskun Lizarralde

**LOGOPEDIA**

650 133 286 - 943 257 417  
Lizarralde 3, 48901 21730 AZPEITIA

**kitzika joyería**

Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea

Retorquia Telermoneko enbasa  
Jose Artetxe, 13 - Tel. 943.15.70.13 - AZPI ITIA

bitxidenda

**DISDIRA**

Plaza txiki, 7 - Telf. 943 81 23 67

**www.uztarria.com**

**zuk ere eman ezazu albistea, agenda, botoa, iritzia...;  
hartu parte Azpeitiko atayen, erraza da.**

telefono zenbakiyek

|                               |              |
|-------------------------------|--------------|
| <b>ERAKUNDEAK - TOKI</b>      |              |
| <b>PUBLIKOAK</b>              |              |
| Udaletxea                     | 15 72 00     |
| Udaltzaingoa                  | 15 13 13     |
| Suhiltzaileak                 | 112          |
| Azpeitia Lantzen              | 15 71 83     |
| Iraurgi Lantzen               | 85 11 00     |
| Nekazal Bulegoa               | 81 24 85     |
| Iturritxiki Ludoteka          | 15 11 79     |
| Zapo Txoko / GIB              | 15 71 61     |
| INEM                          | 15 04 02     |
| Kiroldegia                    | 81 30 69     |
| Igerilekua                    | 81 41 21     |
| Ertzaintza-Azkoitia           | 85 10 00     |
| Aitonena I                    | 81 51 71     |
| Aitonena II                   | 81 23 89     |
| Epaitegia                     | 81 25 55     |
| Ingurugiro Etxea              | 81 24 48     |
| <b>OSASUNA</b>                |              |
| Anbulategia                   | 81 51 00     |
| Anbulategia-Irrialdialdiak    | 81 12 01     |
| Asepeyo                       | 81 44 00     |
| Gurutze Gorria                | 81 32 97     |
| DYA-Donostia                  | 46 46 22     |
| SOS Deiak                     | 112          |
| <b>KOMUNIKABIDEAK</b>         |              |
| Uztarrria herri aldizkaria    | 15 03 58     |
| Azpeitian Zer?                | 81 11 00     |
| Deia (berriemailea)           | 72 57 75     |
| DV (berriemailea)             | 15 09 94     |
| Egunkaria                     | 943-30 02 22 |
| Gara (Herriak Saila)          | 943-31 69 99 |
| Arrate Irratia (berriemailea) | 81 26 32     |
| Loiola Herri Irratia          | 81 44 58     |
| Euskadi Irratia               | 943-01 23 00 |
| Kaito Telebista               | 81 53 35     |
| <b>ALDERDI POLITIKOAK</b>     |              |
| EAJ - PNV                     | 81 55 70     |
| Batasuna                      | 15 12 15     |
| EA                            | 81 00 11     |
| <b>SINDIKATUAK</b>            |              |
| ELA                           | 81 34 46     |
| LAB                           | 15 13 56     |
| EHNE                          | 81 39 28     |
| <b>IKASTETXEA</b>             |              |
| Betharram                     | 81 16 68     |
| Ikasberri                     | 15 12 46     |
| Iraurgi                       | 81 02 10     |
| Jesusen Alabak                | 81 22 49     |
| Karmelo Etxegarai             | 81 26 65     |
| Milagrosa                     | 81 63 80     |
| Urola BHI                     | 15 02 28     |
| <b>KULTURA - EUSKARA</b>      |              |
| Baite Euskara Elkarte         | 15 03 58     |
| Euskara Patronatoa            | 81 45 18     |
| Udal Euskaltegia              | 81 19 47     |
| AEK                           | 15 10 89     |
| EHE                           | 15 10 89     |

|                            |              |
|----------------------------|--------------|
| Udal Liburutegia           | 15 71 95     |
| Loiolako Liburutegia       | 81 65 08     |
| Uztarrria Kultur Koordi.   | 15 03 58     |
| Antxieta Etxea             | 81 35 40     |
| Kontseilua                 | 943-59 12 00 |
| <b>BESTERIK</b>            |              |
| UGLE (Urolako gay-lesbia.) | 273 posta    |
| Euskaltel-informazioa      | 900-84 00 65 |
| Telefónica-informazioa     | 1003         |

farmaziyek gaez

|                             |          |
|-----------------------------|----------|
| <b>ABUZTUAK 1-13-30</b>     |          |
| Beristain.                  | 81 19 49 |
| <b>ABUZTUAK 2-14-26-31</b>  |          |
| Etxebeste.                  | 81 59 74 |
| <b>ABUZTUAK 3-4-15-27</b>   |          |
| Garcia.                     | 81 12 74 |
| <b>ABUZTUAK 5-11</b>        |          |
| Azpiazu (Azkoitia).         | 85 29 81 |
| <b>ABUZTUAK 12-17-18-29</b> |          |
| Aseginolaza.                | 81 13 50 |
| <b>ABUZTUAK 16-28</b>       |          |
| Zulaika.                    | 15 03 34 |
| <b>ABUZTUAK 19-25</b>       |          |
| Jaen (Azkoitia).            | 85 06 60 |

gune publikuek irikite

|   |                            |
|---|----------------------------|
| <b>UDALETXEA</b>                                    |                            |
| Astegunak:  | 9:00-13:30                 |
| Larunbatak:   | 9:00-13:00                 |
| <b>IXPIXIOA</b>                                     |                            |
| Egun osoz irekita                                   |                            |
| <b>IGERILEKUA</b>                                   |                            |
| Astelehenak:  | Iraila arte itxita         |
| Beste astegunak:                                    | Iraila arte itxita         |
| Larunbatak:   | Iraila arte itxita         |
| Igandeak:   | Iraila arte itxita         |
| Kanpokoa:   | 11:00-20:00                |
| <b>KIROLDEGIA</b>                                   |                            |
| Astelehenak:  | 9:00-13:00, 15:00-21:00    |
| Beste astegunak:                                    | 15:00-21:00                |
| Larunbatak:   | 10:00-13:00, 16:00-20:00   |
| <b>UDAL LIBURUTEGIA</b>                             |                            |
| Astegunak:  | Abuztuan egun osoz itxita. |
| Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan: | astegunetan, 9:00-13:00    |

autobusen ordutegiak

|  |  |
|--|--|
| <b>JOATEKO</b>   |  |
| <b>AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA</b>                          |  |
| Astegunak:   | 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)  |
| Larunbatak eta abuztuko astegunak:                       | 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15  |
| Igandeak eta jaiegunak:                                  | 15:10, 19:15   |
| Enpresa:   | La Guipuzcoana   |
| Oharrak:   | 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik  |
| <b>AZPEITIA-EIBAR-BILBO</b>                              |  |
| Astegunak:   | 6:30, 13:00, 18:30   |
| Larunbatak:  | 9:30, 14:30, 18:30   |
| Igandeak eta jaiegunak:                                  | 9:30, 19:30  |
| Enpresa:   | Pesa   |
| <b>AZPEITIA-EIBAR-BILBO</b>                              |  |
| Astegunak:   | 6:35, 13:30  |
| Enpresa:   | Piper Unibertsitate Elkarte  |
| <b>AZPEITIA-AZKOITIA</b>                                 |  |
| Astegunak:   | 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25 |
| Asteburuak eta jaiegunak:                                | 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40  |
| Enpresa:   | EuskoTren  |
| <b>AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA</b>                            |  |
| Astegunak:   | 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10   |
| Asteburuak eta jaiegunak:                                | 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05  |
| Enpresa:   | EuskoTren  |
| Oharrak:   | 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da   |
| <b>AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUTZ</b>                           |  |
| Astegunak:   | 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10   |
| Asteburuak eta jaiegunak:                                | 15:40, 18:10, 20:10  |
| Enpresa:   | EuskoTren  |
| <b>AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitala)</b>                    |  |
| Astegunak:   | 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25  |
| Asteburuak eta jaiegunak:                                | 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40   |
| Enpresa:   | EuskoTren  |
| <b>AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA</b>                           |  |
| Astegunak:   | 6:55, 13:55  |
| Asteburuak eta jaiegunak:                                | 6:55, 11:10  |
| Enpresa:   | EuskoTren  |
| <b>GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK</b> |  |
| Aldalur  | 85 27 18   |
| EuskoTren  | 15 06 77   |
| La Guipuzcoana   | 85 11 59   |

|                                       |   |
|---------------------------------------|---|
| <b>ITZULTZEKO</b>                     |   |
| <b>DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA</b>       |   |
| Astegunak:                            | 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30  |
| Larunbatak eta abuztuko astegunak:    | 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00   |
| Igandeak eta jaiegunak:               | 18:00, 20:00  |
| Enpresa:                              | La Guipuzcoana  |
| Oharrak:                              | 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik  |
| <b>BILBO-EIBAR-AZPEITIA</b>           |   |
| Astegunak:                            | 10:30, 14:30, 21:00   |
| Larunbatak:                           | 9:30, 14:30, 21:00  |
| Igandeak eta jaiegunak:               | 12:30, 21:00  |
| Enpresa:                              | Pesa  |
| <b>LEIOA-BILBO-AZPEITIA</b>           |   |
| Astegunak:                            | 14:00, 20:00  |
| Enpresa:                              | Piper Unibertsitate Elkarte   |
| <b>AZKOITIA-AZPEITIA</b>              |   |
| Astegunak:                            | 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00 |
| Asteburuak eta jaiegunak:             | 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55                   |
| Enpresa:                              | EuskoTren   |
| <b>ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA</b>         |   |
| Astegunak:                            | 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00                        |
| Asteburuak eta jaiegunak:             | 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15                                    |
| Enpresa:                              | EuskoTren   |
| Oharrak:                              | 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da   |
| <b>ZARAUTZ-ZESTOA-AZPEITIA</b>        |   |
| Astegunak:                            | 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45  |
| Asteburuak eta jaiegunak:             | 16:30, 19:00, 21:00   |
| Enpresa:                              | EuskoTren   |
| <b>ZUMARRAGA (hospitala)-AZPEITIA</b> |   |
| Astegunak:                            | 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30   |
| Asteburuak eta jaiegunak:             | 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45  |
| Enpresa:                              | EuskoTren   |
| <b>TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA</b>        |   |
| Astegunak:                            | 9:30, 18:30   |
| Asteburuak eta jaiegunak:             | 9:30, 12:00   |
| Enpresa:                              | EuskoTren   |
| <b>TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA</b>        |   |
| Pesa                                  | 902 10 12 10  |
| Piper Unibertsitate Elkarte           | 85 25 87  |
| Taxiak                                | 81 13 07  |

# Azpeitiko merkatu txikiye

## 1. ETXEBIZITZAK

- 1.1. Saldu
- 1.2. Erosi
- 1.3. Errentan eman
- 1.4. Errentan hartu
- 1.5. Etxeak osatu
- 1.6. Bestelakoak

## 2. LOKALAK

- 2.1. Saldu

- 2.2. Erosi
- 2.3. Errentan eman
- 2.4. Errentan hartu
- 2.5. Bestelakoak

## 3. GARAJEAK

- 3.1. Saldu
- 3.2. Erosi
- 3.3. Errentan eman
- 3.4. Errentan hartu

## 4. LANA

- 4.1. Eskaintza
- 4.2. Eskaera
- 4.3. Bestelakoak

## 5. MOTORRA

- 5.1. Saldu
- 5.2. Erosi
- 5.3. Errentan
- 5.4. Bestelakoak

## 6. BIDAIK

- 6.1. Europa
- 6.2. Mundua

## 7. DENETARIK

- 7.1. Saldu
- 7.2. Erosi
- 7.3. Errentan eman
- 7.4. Errentan hartu
- 7.5. Bestelakoak

deitu

15 03 58

e-maila:

uztarria@topagunea.com

• Partikularren iragarkiak doan dira. Gainerakoek, lerroko euro bat ordaindu beharko dute.

• Uztarriak ez du iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

• Aldaketak adierazi Uztarriari.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 1.1. SALDU

- **Soreasu.** Hiru logela, bainugela, egongela eta traste lekua. Oso eguzkitsua. Salneurria: 81.337 euro (13.500.000 pezeta). Telefono zenbakia: 943 - 15 12 85 edo 943 - 81 22 99.
- **Eliz-kalea.** Eraikitzeaz dauden etxebizitzak. Egongela, bi-hiru logela, sukaldea, jangela, bi bainugela eta traste lekua. Telefono zenbakia: 943 - 89 40 84 edo 636 - 97 43 20.

## 2. LOKALAK

### 2.1. SALDU

- **Plaza Nagusia.** Lehenengo pisua. Telefonoa: 943 - 46 29 31.
- **Urbirtarte.** Telefonoa: 609 - 37 87 31.
- **Erdi-kalea.** Telefonoa: 943 - 81 49 87.

### 2.3. ERRENTAN EMAN

- **Olazko Amaren Plaza.** Telefonoa: 943 - 15 08 72 edo 666 - 52 59 45.

• **lñaki Azpiazu kalea.** Telefonoa: 943 - 81 18 00 edo 943 - 81 02 94.

• **Plaza Nagusia.** Lehenengo pisua, arkupetan. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

• **Landeta.** Asepeyoren ondoan. Telefonoa: 943 - 81 17 59 edo 943 - 81 19 58.

• **Landeta.** Telefonoa: 943 - 81 10 77.

• **Juan XXIII.a.** 7. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 22 85 edo 943 - 81 28 97.

## 3. GARAJEAK

### 3.1. SALDU

- **Arana Goikoa.** 5. zenbakian. Telefonoa: 943 - 58 10 42.
- **Santutxo.** 10. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 07 29.

## 4. LANA

### 4.1. ESKAINTZA

• **Publizitate banatzailea.** Buzoielan publizitatea banatzeko banatzailea behar dira. Autoa izatea eskatzen da. Curriculum Vitaa

bidali, 'Publizitate banatzaileak' erreferentzia jarrita. 292 Posta Kutxa, 20800 Zarautz.

## 5. MOTORRA

### 5.1. SALDU

• **Motoa.** Kawasaki GTX 600R. Egoera onean. Telefonoa: 943 - 76 64 01 edo 605 - 71 24 73.

• **Motoa.** Montesa Cota 315. 1999. urtekoa. Egoera onean. Telefonoa: 943 - 76 64 01 edo 605 - 71 24 73.

• **Autoa.** Opel Corsa. Prezioa: 902 euro (150.000 pezeta). Telefonoa: 943 - 15 17 75.

• **Autoa.** Jeep Wrangler. 91. urtekoa. Gorria. Egoera onean, beti garagean egon da. Telefonoa: 943 - 81 56 94.

• **Autoa.** Jeep. SS-AL. Telefonoa: 943 - 81 35 00.

## 7. DENETARIK

### 7.1. SALDU

• **Pianoa.** Ormakoa. Modu onean. Telefonoa: 652 - 76 15 52. lñaki.

## • BMW 325 Td.

Autoa salgai, lau urte ditu. Zuria. Aire-egokitu digitala. Trakzio kontrola. Airbag-a. Telefono zenbakia: 653 72 74 55. Inazio.

## • Sukaldaria.

Ta-berna baterako sukaldaria behar da. Telefonoa: 636 73 76 14 edo 658 24 39 56.

## • Idiskoa.

Idiskoa salgai. Oso umila da. Informazio gehiagorako telefonoa: 943 - 15 08 59. Gaez deitu.

• **Behiak.** Limousin arrazako behiak txahalekin. Telefonoa: 943 - 15 08 59. (gaez deitu)

## 7.2. EROSI

• **Egurra.** Botatako egurra, aritza, gaztaina, pinua, ohol zaharra eta urritza enborrak erosiko nituzke. Telefonoa: 943 - 81 34 74 edo 943 - 81 45 70.

• **Txanponak.** Txanpon zaharrrak erosiko nituzke. Telefonoa: 639 - 82 27 90. Pello.

## 7.5. BESTELAKOAK

• **Klase partikularrak.** D.B.H., lehen hezkuntza eta lor guztiak. Telefonoa: 943 - 81 63 97 edo 657 - 77 74 24.

• **Udan klaseak.** Uda garaian klaseak ematen dira, ingelera eta oporretako lanak egiteko laguntza. Telefonoa: 943 - 81 37 18 edo 943 - 65 14 47.

• **Ingelerako klaseak.** Ingelera Filologian lizentziatua, eta ingelerako ikastaroak ematen esperientziaduna. Maila guztiak klaseak ematen dira. Baita konbentsazio ikastaroak ere. Telefonoa: 943 - 15 00 89. Irene.



PILDAIN  
inmobiliaria

Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jct.es

Irudiekin, Iraurgi bailaren zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira



87 53 35

Argitarapen honen editzioak laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa  
zuri esker

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,  
LABORALA, KONTABLEA  
- ASEGURAK  
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75  
e-mail: luba.ase@euskalnet.net





argazkilaraye: Azpeitiko Zine Klub Taldea

## Zine Kluba: 25 urte fotograma artean

● **AZPEITIKO ZINE KLUBA.** Taldea 1976. urtean sortu zuten herriko zinema-zale batzuek. Orduz gero, hainbat pelikula eskaini dituzte Soreasu zinema aretoan, eta taldeak berak ere filmak grabatu izan ditu.

● **LIBURUA.** Taldean ibilitako herritarren testigantzekin, taldearen 25 urteotako historia kontatzen da. Taldeak grabatu dituen filmak ere jaso dituzte, baita urte guztiotan Soreasun eskainitako filmeen zerrenda luzea ere.





**1. 'AZKEN LAMIA'.**

(1982). Pello Elorza, Azpeitiko Zine Klubeko kidea, aktore lanetan.

**2. LAN TRESNAK.**

Hasierako bideo-kamera batekin lanean, Jabier Arenas taldekidea.

**3. LEHEN URTEAK.**

Zine Klubaren lehen urteetan, Soreasu zinema aretoa bete egiten zen.

**4. EMAKUMEAK.**

*Mateo Txistu* pelikularen eskena bat.

**5. MATEO TXISTU.**


Pertsonaia Boni Alegriak egin zuen.

**6. LANEAN.**

Mari Karmen Arenas eta Agustin Arenas taldekideak *zurien balantzea* egiten *Mateo Txistu*n.

**7. 'MATEO TXISTU'.**

(1987) Film honekin, Zine Klubak pauso handia egin zuen. Super-8 eta Single-8an aritzetik 16mm.ra pasatu baitzen.





8



9



91

10

**8. ERREZILEN.**

*Mateo Txistu*-n parte hartu zuten hiru emakume: Joxepantoni Narbaiza, Teodoxi Larrañaga eta Karmen Areizaga.

**9. LANKIDEAK.**

*Mateo Txistu*-n parte hartu zuten aktoreak eta Zine Klub Taldeko kideak.

**10. ESZENA BAT.**

*Behin eta Berriz* (1991), Rosa Azurmendi pelikulako eszena batean. Herioaren pertsonaia egin zuen Rosak. Pelikula hau da Zine Klubak egin duen azkena. 1977tik 1991 urtera arte hamasei pelikula egin zituzten Zine Klubekoek.





# BETIKOA BETIKO DENEAN

**O**so betikoa den gaiari heldu behar diot gaurkoan; arrazoi horrexegatik, oraindik ere betikoa izaten jarraitzen duelako eta betikotasun horrek, kezkarria egiten duelako. Batzuetan gauzak ahanzteko joera dugunez, lantzean behin gogora ekartzea gaizki ez dagoenez, egunerokoari helduko diogu.

Gizon eta emakumeok zenbait alorretan desberdinak garela badakigu, baina horrek ez dio zilegitasunik ematen, maila biren arteko etengabeko borroka bezala planteatzeari. Gauzak aldatu dira, bai, horrela orokorrean. Inexistentziaz existentsia pasatu gara, eta existitzen dugun garai hauetan errebelatzen hasi gara, askoren disgusturako.

Denetik entzun dut: Sinpleak direla eta konplikazten hasten direnean, erabat aldrebesten direla. Gero, ulertzeko saiakera egiten omen dugu emakumeok, eta ulertzeri iristen garen garaian, utzi egiten gaituztela. Benetan konplikatua gero!

Eta horrelakoak entzun behin eta berriz eta ez al zaizu buruko ile bat ere mugitzen? Ez naiz emaztearekin haserretzeaz ari, edo iraintzeaz edo emakumeekin sartzeaz. Zerbait positiboa egiteko garaia badela irudituko zaizue, ezta? Zerbait ondo ez doala begibistan dago, ezta?

Eta ez naiz iraultza handietaz ari, txiki eta egunerokoetaz ari naiz. Eta horrelako kasuetan, adibiderik aldrebesenak —eta benetakoak direnak, bestalde— ipinita, “gauza handiak” begibistan geratzen direla seguru-seguru nagoenez, hasi gaitzen, gizon eta emakumeok geure buruari begira.

Lagun batek komentatu zidan, bere lankidea den gizon batek nola beste gizon bati esaten zion gauean bere emazteari esan ziola oheko tapakia kentzeko, ohera joatekoa zela eta. Beste gizonak hala esan omen zion: “Emazteak egin behar izaten al dizu hori ere?” Eta besteak: “Halako tapakia da, hau horrela duena, bestea beste modu hartara...”.

Nik badakit, edo pentsatu nahi dut, hau ez dela etxe guztietan gertatzen, baina badakit gertatuta ere, inork ez liokela buruari buelta gehiegi emango. Zergatik ez? Ez du balio esatea adibidea desegokia denik, gertatzen delako; eta bestetik, zenbat eta adibide aldrebesago, orduan eta argiago.

Kontua da, harritu egiten nauela egunero tankerako zerbait entzutea, etxeko lanen inguruan, haurren inguruan... Eta emazte denek diote, “laguntzarik” ez dutela behar, partaidetza aktiboa baizik. Zikinak ikusteaz gain, garbitzeaz ere arduratzeaz, alegia.

Betikoa *rolloa*, ezta? Ba bai, halaxe da, baina gu

## ESANA.

Tonto batek  
baino, bi  
tontok gehiago  
pentsatzen  
dute

aspertzen bagara, akabo. Pertsonen borondate onaz sekula ez dut dudarik egin, batzuetan zaila badirudi ere, eta oraindik ere ez dut dudarik egiten. Baina argi daukat baita ere: rolak, duela ehun urte banatuak zeuden bezalaxe, banatuak jarraitzen dutela.

Adi gizonok, emakumeok: lan fisikoaz baino, buruko nekez gehiago kexatzen gara. Gauzak nola bideratu pentsatzeaz neka-neka eginda gaude, eta zama arintzeko:

Ondo pasatu festak!



## “Laneako gustokuenak ume txikiyek ditxiñet”

**A**rantzazuk ointxe bukau berri ditu magisteritzako ikasketak. Ikasketak hasi ahala, astebukaeretan umiekin begirale bezela jardun izen da lanien.

• **Zenbat denbora damakin begirale bezela lanien?**

Hiru bat urte izengo ditun begirale lanien hasi nitzela. 18 urtekin hasi nitunan ta oin 21 zauzkenat.

• **Urte osoko lanbidie al den eo udera partekue bakarrik?**

Astebukaeratan *Larunbatetan Jolas* deitutako programan ibiltzen naun. Hori otsailien hasten den eta maiatzien bukau. Hilabete hoyetako astebukaeratan hor ibiltzen naun lanien. Aste Santutan'e egunero antolatzen den zeozer, uderan bezelaxe. Normalien, umiek oporretan daudenien, beti antolatzen den zeoze aisialdiyei beire.

• **Beste danak oporretan eoten dienien, zuek begiraliak lanien. Nola ematen den hori?**

Inbiri pixket ematen din. Baño, hala're, normalien, goizetan izeten ditun ekintza gehiyenak eta orduen egunen zati haundi bat libre zaukenau. Bazauden ekintza batzuk egun guztikuek dienak, baño normalien goizez izeten ditun.

• **Zein adinetako umiek ditun gustokuenak begirale bezela lan eiteko orduen?**

Nik gustokuenak ume txikiyek ditxiñet,

haur hezkuntzakuek, hiru urtetik hasi ta sei urte bitarteko umiek. Hoyek mundialak ditun! Oin, uderan zaharragukin eon behar diñet, seitik hamabi urte bitartekuekin. Hauekin'e ondo, baño normalien hauek askoz espabilauo ditun bestiekien konparaute.

• **Zer motako ekintzak prestatzen dituzue?**

Udera partien irteerak gehiyo eiten ditxiñeu: hondartzara, igerileku berrire,

Igeldoa eta abar. Irteera hauek asko gustatzen ditun. Geo, adiñen arabera, ekintza desberdiñek antolatzen ditxiñeu. Ume txikiyekin gauzek lasayo hartzen ditun, ezin izeten dalako edozer gauze ein.

• **Eta adiñez zaharraguk dienakin?**

Hoyekin gehiyenbat talle-rak lantzen ditxiñeu, era guztiyetao tailerrak, kamixetak eitie, pultserak, txontxongiluek nola ein eta holakuek.

• **Ume asko animatzen al da aisialdiko ekintzeta?**

Bai, baño geo ta gutxiyo etortzen ditun. Oin dala hiru urte, hasieratan, ordun ume pilue etortzen hunan. Geo, urtez urte gutxitzen jun den. Aurten, lehenengo txandan, 50 ume etorriko ditun, eta bigarrenengo txandan 30. Bigarren hamabostaldiyein beti gutxiyo etortzen den.

“Opor garayen iye beti goizetan izeten ditun ekintzak, ta orduen egunen zati bat libre zaukenau”

“Ume txikiyekin gauzek lasayo hartzen ditun, ezin izeten dalako eozer gauze ein”

Nerea Aranburu

**TXIKITEKO AMETSA.** “Ez diñet goguen. Baño hamazazpi urtekin irakaskuntza ikastie pentsau eta horrekin lotuteko zerbaitetan lana eitie izen diñet ametsa”




**KALITATEAREN IZENA**



**[www.lasao.com](http://www.lasao.com)**





Santi Lazkano Kirolak


Behe  
rape  
nak

Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50


# sare@.informatika

Informatika, zuek gero eta hurbilago

Euroari egokitzeko egitasmoa



Enpresa eta autonomoentzat  
Telefonoa dohan



+ + @ = 0 ptas mes

Azpeitia Azkoitia Zarautz  
Pablo VI 19 behe Julio Urkixo 10 behe Kale nagusia 1 behe

Telf: 943157 321

posta@sarea-informatika.com

Prezio ezinobeak ORDENAGAILUETAN



Banatzaile Ofiziala  
**Euskaltel**